

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Otsailak 28, 140. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




**KARMELO
URDANGARIN**
"Antzinakoak" eta
oraingoak ikertzen

Haratuzteak 92

Ezetz igarri nor naizen?

Jabier



% 12_{ko}

MECA, S.A.

beherapena otsaila eta martxoan RENAULT 21
modelo batzutan.

M

argolariak, mendiaren bakartasuna aprobetxatu nahian eta pintzelak erabiliz, Udala auzoaren edertasuna bere lientzoan harrapatu zuen. Bazirudien margolariaren koloreetan betirako izkutatuko zela Udala auzoa; baina horra hor, non agertu zen argazkilari ausarta, bere kamararen objetiboaz baliatuz Udala auzoa, auzoaren edertasuna, margolariak mendiaren bakartasuna



Jabier

aprobetxatu nahian eta pintzelak erabiliz Udala auzoaren edertasuna harrapatzeko erabili zuen lientzoa, pintzelak eta margolaria bera

harrapatu zituen. Eta guzti hori betirako izkutatu beharrean, Arrasate Pressera ekarri zuen, irakurle guztiek ikus zezaten.

OM 1224
FM 99'8

ENTZUN!

HERRIZ HERRI
Larunbatero
11.30 etan

HERRI Irratia



Radio POPULAR
GIPUZKOA

ARRASATE PRESS ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxe: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Publizitatea eta harpidetza:

Kepa Oliden. Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zarara,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalatakoan, ASA taldea, Xabiri Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoñi Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Ezarrazoi hutsaren kritika

Edozer planteamendu filosofiko, bestela filosofipentsamolde guztiak ikertu, itaun berberaren inguruan garatzen da: zer jakin genezake guk, lahendik jakin ez eta teoriaren harira gure jakintzaren baitara bil daitekeena? Baliteke, ahanzduraren kutxan ongi gordetako ezagupidetza ezjakintzat ematea. Horrek ez du balio. Zerbait berri eta zeharo ezezagun argitu behar du teoria filosofikoak, aurrerapenaren aurrerapenaz gure bide zintotik jarrai dezagun.

Filosofia aipatu dut; txikitandik liluratu nauen jakintzaren arlo guztiz berezia. Hala ere, ez da nire espezialitate, behintzat filosofia hutsa. Ezin uka, ordea, inbidiazko tanta uxaezinez jarraitzen diodala, nire ezintasunetik, filosofo adituek gai konkretu bati eraman dezaketen eztabaidari. Baina, Descartesez berak ere behinola esan zuen bezala, nire gogoak gorputza osoa ezagutu dezan, lehendabizi zangoak ezagutu beharko ditu. Eta filosofo haundi horrek adierazi ez zuen arren, nire aldetik zera gehitzen diot baieztapen horri: gogoak zangoa inon sarreraz ez dezan.

Ez dakit Freud, gaurreguneko Euskadin biziko balitz, gai izango ote zen gurearen gaineko diagnostikorik emateko. Inolako dudarik gabe, berriz, nahi izanez gero egundoko irabaziak

lortuko lituzke, gurean hazi diren zenbait espezimen bitxiren erreakzioak aztertzean.

Pena haundiz irakurri nuen lehengo egunean, Eusko Legebiltzarrak mozio bat onetsia zuela Europako Komunitatean euskara ofiziala izan dadin. Eta pena diot, hain zuzen ere, Gernikako Estatutuaren seigarren artikulua markatzen duen herrendura ahanzi ezineko jarreratik. Gai ez garenean, euskaldunok Euskadin merezi dugun begirune eta berdintasuneko erabilera aldarrikatu eta exijitzeko, egundoko adar lotsagarria iruditzen zait Aberriaren Aita-Amek egindakoa. Eta, seguru aski, lasai geratuko ziren!

Bost axola zeinek aurkeztu zuen mozioa. Kako artean, diodan, katxondeo gehiagorako PPK egin zuela. Baina horrek ez dio gaiari larritasunik arintzen. Euskal gizartea pairatzen ari den nortasunaren krisia nabaria da eguneko ekintzetan. Hizkuntzarekin egiten ari dena beste eredu txiki bat dugu. Askorentzat, desagertuko balitz hobe..., eta gure artean bizirik iraun dezan gutxieneko mantenua ukatzen zaion aldeberean, europar erakundeetan haren erabilera ezartzea eskatzen dute. Han, dirudienez, ez die arazorik sortuko. Freudek frakak bete lan izango zuen oraingo Euskadin. Ordea, etzaleku faltan aurkituko zen, hainbeste bezereztzat.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL


Memesa
79 42 22

Pando



PINTURAK eta
PAPEREZTAPENAK
Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerías. 79 87 62



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ZANGITU
C. B.

**PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK**

Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 79 91 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Eskerrona

Batzutan, ez gehiegitan egia esan, zerbaitegatik eskerrak emateko behar izugarria sentitzen du batek. Benetan ezer ez dena, baina hala ere, mesede handi bat egin diotela sentitzen du pertsonak.

Ontasun zentzu horixe da orain egun batzu neure baitan sentitu nuena. Udal honetako Hezkuntza Batzordearen proposamenez Gobernu Batzordeak ikasketetarako laguntza ukatzen zidala esanez jakinerazpena jaso nuenean sentimentu horixe izan nuen.

Eskerrikasko, erabat hunkituta nago nire arazo txikia konpontzen saiatzeko zuen denbora baliotsuaren zati bat galtzeko adeitasuna azaldu duzuelako. Ez dio axola azkenean, eta denok dakizkigun eta orain garrantzirik ez duten arrazoiengatik, egia bihurtu ez den solidaritate keinada batetan geratu arren. Baina, beno, esan dizuedan bezala, kontutan hartzeko moduko detailea izan da zuena, hainbeste benebolentziaduna.

Nola sentitzen naizen? Ederki. Eta bide batez esanda, paperontzia zuen mahaitik oso urruti ez badago, eskertuko nizueke (ikusten duzuen bezala, ni beti hain eskerroneko), eta endredu handiegia ez bada, bere garaian eta halako atrebentziarekin eskabiderako bidali nizuen dokumentazio guztia igorriko bazenidate. Izan ere, beste lekuren batetan saiatzen jarraitzeko behar izango dut, beharbada. Hain gauza gutxiagatik "prezidenteak jartzea" ideia batzueganako zigorrerako bide izango ez den lekuren batetan.

Ahal balitz, (ez gaude asko eskatzeko egoeran ere) guzti hau zuenganako gauza pertsonaltzat ez hartzea gustatuko litzaidake. Ez, ez da hori. Nik, beste batzuk ez bezala, badakit noraino egin dezakedan hegan. Beste batzuk oster, hain iristen dira gora, paisaiaren edertasun osoa ikustera ere iristen dira, baina horixe da tristeena, ezin dute hazia ikusi, altura horietatik kontrolatu uste duten guztia emarazten duen hazia.

Tira, dena esanda dagoenez, eta

lausengutan luzatu nahi ez dudanez, (gaizki ulerturik egon ez dadin), bukatu egingo dut. Ez, ordea, nire eskabide txikiaren porrotean lagundu duten guztiei berriz ere eskerrak eman barik.

Eskerrikasko, mila esker ezerengatik. Ala, eskerrikasko guztiarengatik esan beharko nuke?

Puerto de Santa Maria gartzelatik.

PAKO MARTIN ROBLES

Liburua, Liburutegia eta Arrasate Press


Pozik irakurtzen dut azkenengo aleetan liburu munduari eskeintzen diozuen atentzioa. Nahiz eta txikia izan oraindik, nire gustorako behintzat, gustora irakurtzen ditut datu konkretu horiek. Aipatu nahi nuke liburutegiak ematen duen "Liburu berrien zerrenda" hauen inportantzia ere. Horri ezker aukeratzeko bait ditugu hurrengo irakurketak nahiz eta denborarik ez izan denak dastatzeko. Nabaria da gure Liburutegiak gero eta begirune gehiago ematen diola irakurle desberdin kopuruari, adin guztietara heltzeko asmoarekin, hainbat gaien artean selekzio egoki eta kalitatezkoa eginez. Esan beharrik ez dago lan zaila eta neketsua dela, gaur egun dagoen literatur superproduzioarekin. Errezagoa egingo zaigu, zerrenda hau dela medio, liburu zoragarri bat bilatzea...Ah! eta noizko kritika literarioa Arrasate Pressen? Kirolak komentatzen dira ba, zergatik ez liburuak? Telebistako, programazioa zabaltzen den bezala, irratia, zinea eta abar liburuak ere, bere espazioa du. Ez iezaiozue ukatu; liburuak duen garrantzi totala ez da asteko agenda baten sartzen.

Gainera eta aldi berean, eskerrak eman nahi dizkizuet egiten duzuen lanarengatik: informazioa hedatu eta irakurketa indartu.

Segi horrela!

ASUN AGIRIANO


Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

Haratuzteetako mozorroa prestatu duzu?



Kontxi Gallego
(Ikaslea)

Bai, bi dauzkat prestatuta, bat erromatarra eta bestea pailazoarena. Oraindik ez dakit zeinekin irtengo naizen.



Juan Jose Iturbe
(Baserritarra)

Azken momentuan prestatzen dut beti. Askotan, egun hortako arratsaldean bertan asmatzen dut zerbait.



Jose Mari
(Txoferra)

Ez, ez naiz mozorrotuko, lan egitea tokatuko zait eta. Gainera aurreko urtetan ere ez dut aukerarik izan.



Ana Loiti
(Langilea)

Ez, ez dut prestatu ez naizelako irtengo. Justu egun hortan lana egitea tokatu zait.



Maitane
(Ikaslea)

Bai, sebilana jantzia daukat prestatua. Gainera urtero jazten dut zerbait.



Kilen eta Mikel
(Ikasleak)

Bai, superman mozorroa prestatu dut. Urtero preparamen dut, joan zen urtean indio jantzi nintzen.

Bai, nik ere prestatuta daukat, aurreko pirata jantziko naiz.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitatea eta hizkuntz berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza-terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe-bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

PUB HAIZEA



BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTEERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



28

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Espias sin fronteras" (5-7.30-10).
- Bideo emanaldia.
- Haratuzteak-92 argazki rally-aren lehen eguna, ASAk antolatuta.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

29

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Billy Bathgate" (5-7.30)
- Haratuzteak-92: Erraldoi eta Kilikien kalejira arratsaldeko 6.30etan. Musakolako Kirolegian "Sabado Regular III Playback jaialdia", gaueko 10.30etan. Gaueko 11etatik aurrera dantzaldia

Kirol Agenda

Futbola

- Mondra eta Pasaiaren arteko partidua, igandean Atxabalpen arratsaldeko 4.15etan.

Futbitoa

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne, larunbata eta igandea bitartean hamabi partidua.
- Cnes Brues - Electricidad Cover, Iturripen larunbatean arratsaldeko 7etan.

herriko plazan *Hexagono* taldearekin.

- Mineral eta fosilen erakusketako azken eguna.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

1

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Billy Bathgate" (5-7-9.30)
- Haratuzteak-92: Eguzki taldearekin dantzaldia arratsaldeko 7.30etatik aurrera. Zezen suzkoa gaueko 8.30etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Corcuera, Musakola. Gauez: Guallar, Bergara.

2

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Billy Bathgate" (7-9.30)

- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gauez: Estella, Bergara.

3

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Billy Bathgate" (7-9.30)
- Haratuzteak-92: Umeentzako sokamuturra Kondekua zelaian, arratsaldeko 5etan. Pailazoan emanaldia Seberon, arratsaldeko 5etan. *Auskalo* hankapalo taldea eta *Samasiku* fanfarrea, herriko plazan arratsaldeko 6etan. Jator taldearekin dantzaldia, 10etatik goizaldera arte. Sardinaren hileta, gaueko 11.30etan herriko plazan. Mozorro Lehiaketaren sari banaketa, gaueko 12.30etan herriko plazan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santamaina. Gauez: Mozos, Bergara.

Saskibaloia

- Emakumezkoen Centraljet Euskal Air eta Gernika taldearen arteko partidua, Iturripen larunbatean arratsaldeko 5etan.

Pilota

- Deba Arroa txapelketaren barne, Iturripen igandean, goizeko 11etatik aurrera Aretxabaletaren aurkako partidua.


Rugbya

- Garagartzan, Mondra eta Bera-Bera taldeen arteko partidua, larunbatean arratsaldeko 4.30etan.

Deialdiak

• Emakumeen eguna

Datorren matxoaren 8an Emakumeen eguna ospatzen dela eta, ekitaldi batzuk antolatu ditu Arrasateko Emakumeen Asanbladak. Astelehenean, "Ama-alaben arteko erlazioa" izenpean hitzaldi bat izango da. Hizlaria Asuncion Gonzalez psikologoa izango da. Asteazkenean "Emakumearen depresioa" hitzaldia emango da, Silvia Ballesteros psikologoaren eskutik. Biak Monterronen izango dira arratsaldeko 7etan eta emakumeei zuzenduta daude. Larunbatean festa-afaria izango da Kataiden. Eta igandea 8an manifestaldi bat egingo da Seber Altuben. Manifestaldia Egizane eta Emakumeen Asanbladak antolatu dute.



Mendia

• Mendi Irteera

Besaide Mendizale Elkar-teak beste irteera bat antolatu du datorren martxoaren 8rako. Ibilbidea Zeanuri, Lekanda eta Zubiaur herri artean izango da. Prezioa 800pezetako bazkideentzat, 1100 ez bazkideentzat eta gazteentzat 400koa. Izena emateko martxoaren 2, 3 eta 4an Besaideko egoitzara joz, 7etatik 8.30etara. Irteera igande goizeko 7etan izango da Garibai geltokitik eta itzulera iluntzean.

1992ko otsailak 28



Haratuzteak atarian

Programazio mardula arrasatearrentzat

'1992ko haratuzte jaiak une batetik bestera hastear daude. Gaur ostirala lehengo eguna da eta jaiak gaitzat hartuta, argazki rallya antolatu da. Irabazleen artean lau maila bereiztuko dira eta emango diren sariak 20.000tik 5.000ra joango dira kategoriaren arabera. Larunbatean Arrasateko Erraldoi eta Kilkien kalejiraz gain, gaueko 10.30tan Hirugarren Play Back Jaialdia ospatuko da Musakolako Kiroldegian. Egun berean Herriko Plazan Hexagono taldearekin erromeria ere izango da. Igandean zezen suzkoa irtengo da 8.30etan eta Eguzki taldearekin erromeria ere izango da. Arratsaldeko 5etatik gaueko 12.30ak arte ospakizunez josita egongo da. Adibide gisa hona hemen batzuk: 5etan Takolo, Pirrux eta Porrotx pailazoen emanaldia Seber Altuben; 6etan Auskalo Hankapalo taldearen emanaldia eta 11.30etan Sardinaren Hiletarekin bukatu egingo dira jaiak.

Jaiak

• Ihauteriak Aretxabaletan

Datorren igandean hasiko dira Aretxabaletan aurtengo ihauteriak. Goizeko 10etan txistularien dianarekin hasiko dira jaiak. Gero 11etan binakako txapelketaren finala ospatuko da eta 12etan "Ikuska" txarangarekin Herriko Kaleetan zehar kalejira izango da. Era berean, momentu horretan, kuadrilen desfilea hasiko da, eguerdiko 2arte luzatuko dena. Horien sariak arratsaldeko 7etan banatuko dira. Bi maila bereiztuko dira, 16 urtetik gorakoentzat eta

beherakoentzat. Lehen kategorian 30.000tik 10.000ra doaz sariak eta bigarrenean 10.000tik 3.000ra. Asteartean ere arratsaldeko 3etatik 12.30arte izango dira ekitaldi gehiago. Ohitura den bezala jaiak Txinoa lurperatzearekin bukatuko dira.

Ikastaroa

• Ingelesa

First Certificate, Advanced eta Proficiency, Cambridge unibertsitateko ekaineko asterketak egiteko matrikula konbokatua jadanik zabalik dago, Ahi-zke-Cim-eko bulegoetan. Epea martxoaren 4an bukatzen da eta

informazio gehiagotarako bertara zuzendu edo telefono honetara dei egin dezakezue: 79 65 54.

Bertsoak

• Bertso saioa Aretxabaletan

Gaur ostirala gaueko 10.30tan bertso saioa izango da Aretxabaletan. Zarai zinean izango da eta partehartzaileak honako hauek izango dira: Andoni Egaña, Mikel Mendizabal, Jon Maia eta Unai Iturriaga.

Aldizkariak

• Jazten VI. zenbakia

"V. mendeurrenean, gora nazio etnikoak! behera estatu zaharrak!" izenburupean Jazteneko seigarren zenbakia kalerratu da dagoeneko. Ale honetan agertzen diren lan askok, V. mendeurrenaren alderdi historikoan sakontzen badute ere, zatirik mardulena oraingo egoerari begirako eritziei eskaini nahi izan zaio.

Momentuz, orain bi urte ekindako biderei amaiera eman zaio Jazten-eko seigarren ale honekin. Beste fase bati ekin aurretik, geldiune bat egin, orain arte egindakoaz jabetu, harpidedungoarekin harremanetan jarri, eritziak jaso eta kolaboratzaileekin berba egin eta etorkizunean egin daitekeenari begiratzeko asmoa dago.

Txirrindua

• Dorletako taldeen aurkezpena

Dorleta txirrindulari elkarte-ko taldeen aurkezpena egingo da larunbat honetan Dorletako Santutegian. Goizeko hamarretan meza izango da, ondoren taldeen aurkezpena eta bukatzeko luntx txiki bat.

“Antzematen dut sistema kooperatiboak prentsa hobea duela kanpoan ezarpen eremuan bertan baino. Hemen ohituta gaude esperientzia kooperatibora eta beharbada horregatik ez diogu lortutako hainbat gauzari halako garrantzirik ematen”.

(Andoni Zubizarretak TU-Lankide aldizkarian. 1992ko urtarrila)


“Mexicoko bidaian ondo ere bete dira sortu-tako espektatibak. Taldeak hogeitau urte baino gehiago darama Mejikon, eta denetik pasa dugun arren, egia da une hau apasionagarria dela. Mundua eskualdeka antolatuturik dagoez, Mexiko euskal enpresariatzat oportunitatea da, sortzen ari den esparru ekonomiko horretan sartzeko plataforma, nahiz eta oraindik sinatu ez. Euskal Herriak badu nahikoa teknologia, gestiorako gaitasun, produktuak, katalogoak merkatu horretan egon eta funtzio bat betetzeko adina, ez bakarrik merkatu mexikarrean inplikatzeko, baita geuretzat ere, egitura aldetik dauzkagun gastu handiak jasateko. Izan ere, Europako Merkatu Bakarrak neurri baten behartu egiten gaitu ikerketa eta garapeneko gure planteamenduetan eta negozio zifrak handitu premia dugu horrek ekarriko dituen gastuak xurgatzeko”.

(Jabier Mongelosek DEIA egunkarian. 1992-2-23)

“Neure herritik faltan botatzen dudana, udan cricket-a ikustea, garagardo epel famatua eta janari indiarra. Hemendik hara eraman, berriz, perretxiku errebueltua, idi-txuleta, piperrak, patxarana eta Arabar Errioxako ardoa eramango nituzke”.

(Ahizke-Cim-eko David Thorn irakasleak TU-Lankide n)

Zer deritzozu *Benetton* markak bere iragarrietarako HIESez hiltzorian dagoen gaixo bat erabiltzeari?



SIDA edo HIESaren kontrako Gizakien Komunitateak, *Benetton* markak egiten duen

HIESaren erabilpena salatu nahi du, gaixotasunarekin zerikusi gutxi duen asuntuetan. Izan ere, hiltzorian dagoen gaixo baten irudiak munduari buelta eman dio. Aurreko kanpainetan demonstratu dutenez, eskandaloa probokatzeko helburu bakarrarekin “publizitate erasokor” deitzen duten publizitate mota asmatu dute. Kasu honetan, erabilpen honek mezu desegoki eta nahasgarriak zabaltzen ditu, gizarte mailan dagoen HIESaren kontrako gaitzespena sakonduz.

Enpresa horrek, gaixotasuna dela medio irabazi finantziarioak atera nahi ditu. Hala ere, eskatu zaionean inoiz ez du aldeko laguntzarik eman nahi izan. Horregatik eta gaixotasunaren erabilpen desegokiagatik HIESaren kontrako Gizakien Komunitateak, marka hortako jantzi eta artikulo guztiei boikota egitea espero dute, Britaina Handian eta beste herrialde batzutan egiten hasia den bezala. Era berean, kontrako jarrera hau “Conferencia Internacional de Personas” elkartera eta beste erakunde ez gobernamentaletara bidaltzeko asmoa du, gaixo horiei solidaritate eta ez diskriminazio eta baztertzea agertzeko.

JON SALABERRI,
HIESAREN AURKAKO BATZORDE HERRITARREKO
PARTAIDEA

Kabia altzariak
Gipuzkoako Etorbidea, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

ARRASATE
HOTELA

Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA Tfnoa: 79 08 07

M E C A R A P I D

IKUSENTZUTE BIDEZKO MEKANOGRAFIA
• 28 ordutan, egunear klase bat, 200 pultsazio minutuko
• Hatzamar guztiekin idaztea
• Tekletara begiratu gabe
• Baita abiadura ikastaroak ere, minutuko 350 pultsazio arte.
BAITA MEKANOGRAFIA
ORDENADORE BIDEZ ERE
TAKIGRAFIA
meca-rapid
Otalora, 3-1. C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53


Aramaio

Haratuzteak 92

Larunbatean ospatuko dira aurtengo haratuzteak. Goizeko 11etan "Altxorren bila" jolasa izango da polikiroldegian. Arratsaldeko Setan mozorroen desfilea hasiko da eta 7arte jolasak izango dira buruhandiak, parkean eta polikiroldegian. Ordu horretan txokolatada izango da. Eta jaiak bukatzeko herri afari izango da. Txartelak tabernetan daude salgai eta prezioa 1000 pezetakoa da.

Gaztetxea

Udaletxeko azken ohizko bilkuran gaztetxerako eskatuko diren oinarrizko arauak zehaztu ziren. Lehenbizi ordutegia mugatu zen: asteen zehar gaueko 12ak arte eta astebukaeretan ordubiak arte. Adina ere zehaztu zen, 14 eta 25 urte tartekoek sarrera libre izango dute. Beste arazo batzuk konpondu gabe gelditu ziren: altzariak, jokuak, berogailuak... Gainera herrikoak ez direnak sartzekotan, bertako norbaitekin joan beharko dira.



Aretxabaleta

250 zuhaitz berri

Herriko jendeak bultzatuta eta Udaleko inguru giro batzordeko Jokin Bengoaren ardurapean lagunduta, Mendiolako bidean, sasi eta belarrez josita zegoen Udaletxeko lur zati bat, garbitu, lurra landu eta 250 zuhaitz eta zuhaixka sartu dituzte. Auzolanean ibili den jende pilaren lana eta beste hainbat gauza ordaindu behar izatera, bi miloi inguruko aurrekontua izan zitekeen. Orain hilabete batzuk hasi ziren lanean eta argazkian ikusten denez, gaur duen itxuraz edozein lorategi edo parkerekin konpara daiteke.

Tartak saltzen

Almen ikastetxeko 2. REM mailako ikasleak ikasketa bidairako dirua lortzeko antolatu dituzten ekintzen artean, datorren igande goizean tarta salmenta egingo dute Erdiko kalean, 11etatik 2.30etara.

Oñate

Maskara lehiaketa

Laixan elkarteak eta Kultura eta Turismo sailak III. maskara lehiaketa antolatu dute. Igandean, denen erakusketa izango da Foru enparantzan eta arratsaldeko 7etan subasta egingo da.

Ihauteriak

Igandean hasiko dira aurtengo ihauteri jaiak. Arratsaldeko 5etan bertako dantza taldeak *Luzaideko* ihauterien dantzak eskeiniko dituzte. Asteartean, arratsaldeko 4etan *Txoronpo eta Patxi* pailasoen emanaldia izango da. Arratsaldean zehar *Denok Bat* txaranga ibiliko da kaleetan erraldoi eta ixorimaloekin alaituta. Gaueko 10.30tan *Hator* taldearekin dantzaldia.

Emakumeen azterketa

Joan zen urtarrilean onartu zen emakumeen egoera aztertzeko plangintza bat eta aste honetan jarriko da praktikan. Proiektuak 848 etxe bisitatzea aurreikusten du eta erabiliko den teknika galdeketea izango da.



ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

▣ Nekazarien hitzaldia

Joan zen asteartean nekazariei zuzendutako hitzaldi bat egin zen zen Oñatiko Kultur Etxean. Trataturiko gaien artean honako hauek bereiztu ziren: Europako nekazal politika, esne sektorearen egoera eta nekazaritzaren etorkizuna. Emaileak Jose Manuel Goikoetxea eta Inaki Txueka diputatua

▣ Intsumisioaren alde

Donostian asteazkenean, ordeko zerbitzu soziala ez betetzeagatik hiru intsumisio gipuzkoar epaitu behar zituztela eta, Arrasateko ikasleek greba eguna izan zuten asteartean. Eguerdiko 11.30ak inguruan ikasle talde batek Seber Altube enparantzan bildu eta minutu batzuetarako bidea moztu zuen. Ondoren giza-katea egin zuten herriko kaleetan zehar.



ONGI ETORRIA JAIOBERRIEI

Liherr Romero Sanchez, otsailaren 17an.
Miren Barrenetxea Iñarra, 18an.
Yara Ainhoa Hernandez Cuevas, 19an.
Eider Murgoitio Bengoa, 23an.
Iker Barbero Lopez, 24ean.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Vicente Fuentes & M^a Concepción Altuna.
Otsailaren 22an. Elizaz.
Pedro Mari Otxoa & Amaia Arana, 22an.
Elizaz.

Txandaka

EMAKUNDE, EMAKUMEAK... ETA ABAR

Emakume guztiak beharrezkoak gara gure generoa insumisiora ateratzeko, bai arlo publikoan bai arlo pribatuan Euskal Herriko gizon eta emakumeen berdintasuna askatasunean lortzeko. Joan gaitezen praktikara eta analiza dezagun zein estrategia eta mekanismo behar dugun, menekoen ejerzitoa eta bigarren mailako hiritarak izateari uzteko.

Tratu berdintasunerako ekintza positiboak, ... baina ...

Beharrezkoa da kontzientziazioa eta lotzen gaituzten baldintzetatik askatzeko medioak herri bakoitzean praktikan jartzea. Emakume guztiontzat gizartean lanpostu bat errebindikatu behar dugu. Zerbitzu Sozialen (haurtzaindegiak, jantokiak, labanderiak), etxekolan eta heziketa konpartitua sortzea. Aholkularitza juridiko, mediko, psikologiko eta sexuala duten Planifikatze Zentruak. Babes etxeak tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzat. Ama ezkongabe, emakume separatu eta euren seme-alabek dituzten arazoei seriotasunez erantzun. Horien arazo psikologikoak, ekonomikoak, etxebizitza-arazoak etabar konponduz eta



Txaro Zubillaga (*)

ez Gasteizko Gobernuak Emakundekoek azaldu dion bezala pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako (bikote bat separatu eta gizonak emakumeari ordaintzen ez dionean) 30.000 pezetako Fondoak sortuz. Diru apur horrek ez du arazoa konpontzen eta Instituzioen irudia gar-

bitzen du, hain sektore desbabestua pobrezia eta indefentsiora kondentuz. Gizarteari adinekoentzat jubilazio duin bat esigitu. Bizitzako maila guztietan emakumeentzat diskriminatzailea den antolamendu juridiko-politikoaren aldaketa, eta abar...

Eta gizarte matxista eta patriarkal honetan dauden botere, jerarkia eta menerapen erlazioak ezabatuko dituen epe luzerako estrategia bat aplikatzea.

Lorpenak gure borroka eta organizazioaren araberakoak izan dira. Argi dago gure eskubideak ez dizkigutela ez Europan, ez Estatu Espainiarrean ez eta Euskal Herriko oraingo Instituzioetan ere erregalatuko. EZ! Euren interes propioen defentsa ... nahitaez gure opresiotik pasatzen da eta.

Ulertzen ... Emakunde?

(*) EGIZANEGO PARTAIDEA

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias, 28-B ARRASATE Tfnoa: 79 08 70

ENARA

OSAGARRIAK

Maalako Errabala, 21
Tfnoa: 79 62 32
20500 Arrasate





Arrasatearren %36ak ibilgailu motaren bat dauka

Hirutik bat ibilgailuaren jabe

Martxoaren 31a arte ibilgailuen zerga ordaintzeko epea

Martxoaren 31a arte, Udal Gordailuzaintzako bulegoetan 1992ko trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko aukera izango da; aipatutako data pasa ondoren, ordaindu gabe gelditzen diren ordainagariei ehuneko 20a erantsiko zaie.

Gaur egun, Arrasaten 8.111 auto, 631 kamioi, 316 motor, 2 autobus, 33 traktore eta 50 atoin edo erremolke daude, guztira trakzio mekanikozko 9.143 ibilgailu. Ibilgailuen kopurua eta biztanleena kontuan hartuz gero, argi dago hiru arrasatearretik batek ibilgailu motaren bat duela, %35ak gutxi gora behera. Dena dela, errealitatean ibilgailuren bat duen jendearen kopurua handiagoa da, hamazortzi urtetik beherrakoak eta jubilatuen gehiengoak ez du gidatzen eta.

Autoen erroldari begiratu ezker, gehienak 1.200 zentimetro kubikora artekoak direla esan behar, 6.327 ibil-

gailu hain zuzen ere; baina azken urteetan auto handiagoak erosteko joera nabarmena da: 1987an 1.200 zentimetro kubikotik gorakoak 537 ziren, 1988an 678, 1989an 807, 1990ean 1184, 1991an 1358 eta 1992an 1497. Autoen jabeen artean bezala, motor zaleen artean joera bera antzeman daiteke, duela urte batzuk zilindrada txikiko motorrak gehien ziren moduan orain zilindrada handikoak dira nagusi eta. Kamioiei dagokienez, aipatu behar gehienak txikiak direla, dauden 631 kamioietatik 350ek 1000 kilo baino gehiago ezin dituzte garraiatu eta. Azkenik traktoreen gaia ere aipagarria da, matrikulatu gabeko asko daudenez ibilgailuen udal erroldan agertzen direnak baino gehiago bait dira.

Erroldan agertzen diren 9143 ibilgailuen zerga kobratuko balitz, Udaletxean 70 milioi PTA inguru sartuko lirake.

Usteak uste


Aste honetako zutabea idazteko, bi gai darabilizat buruan. Bietatik bat aukeratu beharrean, bakoitzari buruzko erreflesio-zertzelada egitea otu zait.

Lehenengoa, badatozen Karnabalak, Ihauteriak, Haratuzteak, Aratusteak (eta azken bi horiei konbinazioz sortzen direnak) jaiet buruzkoa.

Batetik, SUDC Batzordearen ahaleginez antolatzen diren ospakizun ezberdinak zenbateraino eragiten duten herrian eta, bestetik, jai honi Arrasaten zelak deitzen ote zaion eta, benetan ohihurtariek egon ote den sekulan, Aretxabaletan txino dantza etab. bizi izan duten moduan.

Bigarrena, zutabe luzea idazteko modukoa, LOGSEaren inplantazioaren ondorioz, badatoz musika irakaskuntzak jasango dituen sakoneko aldatetak. Erreformaz, tinta erreka ugari isuri da, ez ostera musikaren erreformaz. Irakaskuntza artistiko honen inguruan dabilzane: irakasle, guraso, ikasle eta abarri ez zaie gura adina informaziorik eman. Argibideak emateari ez ezik, kontzientziarioari ere noizbait ekin beharko zaio.

JON GARAY



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

□ Trafikatzailea atxilotua

Pasa den asteartean, heroina trafikatzailer delakoan, Pascual G. G. 25 urteko gazte arrasatearra atxilotu zuen Ertzaintzak. Ertzaintza atxilotuaren etxera sartu zen eta mila dosi heroina aurkitu zituen, merkatuan 1.400.000 PTako balioa izan zezaketenak. Dirudienez, Arrasate, Zumarraga eta Bergarara iristen zen heroinaren %80a banatzen zuen atxilotuak, Miranda de Ebrotik ekarrita.

□ Lorazantza zerbitzua

Asteleheneko Gobernu Batzordeak, zerbitzu batzordeari lorazantza zerbitzua kontratatzeko bete behar diren baldintzak hobeto aztertzeko agindua ematea erabaki zuen. Orain arte, Arrasateko lorazantza lan guztiak "Parques y jardines de Abadiano" enpresak egiten zituen.

□ Andaluzia Eguna

Andaluzia Eguna dela eta, *Al-Andalus*, *Alegria de la Sierra* eta *Sueños de Andalucía* taldeak larunbatean Andorrara joango dira, bertako Andaluziako etxeak gonbidatu ondoren.



Dauden errepideak konpondu eta zabaltzea izango litzateke irtenbide egokiena EKItrentzat

EKI errepide sarearen aurka

Tren normalaren alternatiba proposatzen du

EKI ekologista taldeak atzo arratsaldean, Deba Garaia zeharkatuko duten komunikazio sarearen proiektuei buruzko prentsaurrekoa eskaini zuen Monterronen. Proiektatutako korredore, autobia, autopista edo abiadura handiko trenak nondik pasatuko diren eta eragina zein tokitan izango duten aipatzeaz gain, EKI-koek "azpiegituren beharrez" hitz egin zuten, esanez inoiz ez dela behar horien zergatiarik ematen eta dimentsioez bakarrik hitz egiten dela: garapen ekonomikoaren helburua, Europan sartzeko behar beza-

lako egituraz, hara-honako bidaiak bizkor egiteko beharra...

Deba Garaia zeharkatuko duen abiadura handiko trenarentzat, tren normalaren alternatiba proposatzen du EKIk, merkeagoa izan eta zerbitzu hobea eskaini bait dezake. Errepideei dagokienez, orain daudenak konpondu eta zabaltzeko irtenbidea aipatu zen.

Helburu horiekin EKI ekologista taldeak, bailadako gainontzeko talde ekologistekin bildu eta gero, kale eta instituzio mailan kanpaina bat bultzatzeko asmoa dauka.


LANDALUZE

AHATE-PRODUKTUAK
TERRINE DE FOIE BLOC
PARFAIT MCRET CONFIT

ETXEAN EGINIBO
AHATE-URDIAZPIBOK

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80



Erdara nagusi publizitatean

Euskara hutsean anuntzio bakar bat ere ez

Iaz egin zuen bezala, 1991an Arrasateko dendariak atez-ate banatu duten publizitate komertzialaren azterketa egin du AEDk aurten ere.

Euskararen erabilera kontuan hartuta, urte osoan zehar herriko 118 merkatarik banatutako 260 orriska aztertu dira. Egindako azterketaren emaitzak ez dira bat ere pozgarriak izan: Euskara hutsean bakar bat ere ez zen egin, gehienbat euskaraz egindakorik ere ez zegoen, bietara egindakoak 57 izan ziren, gehienbat erderaz egindakoak 25

eta erdera hutsean egindakoak 178. Iazko datoeekin konparatuz gero, ez da nabari inolako aurrerapenik.

Nahiz eta banatu diren iragarki-orrien kontrola eraman, AEDkoek zioten iaz nahi baino gutxiago landu zutela aipatutako arloa, baina aurrera begira merkatariei egin behar duten publizitatean euskarari presentzia duina ematea eskatu nahi zien. Era berean, herritarrei euskararen aldeko jarrera aktiboa hartzea eskatzen zaie, "arlotan zehatz honetan, gainerako guztietan bezala".

11 arrasatear sententziaren zain

Pasa den asteartean Bergarako epaitegian hamahiru gazteen kontrako juizioa izan zen, hauetatik ha maika arrasatearrak dira, bat atxalbaltarra eta bestea bergarakoa. Bideo bat froga bezala hartuz, 90. urteko ekainaren 26an izandako istiluengatik epaitzen dira. Informearen arabera 92.000 pezatakako kalteak izan ziren. Fiskalak urtebete eta egun bateko zigorra eskatzen du, eta kalteen ordainketa. Aldeko abokatuak berriz absolutioa. Lekukoen artean, biertzainek deklaratu zuten eta ondoren frogatzen hartzen den bideoa proiektatu zen, bertan akusatatuak banan banan ezagutzaraziz. Bigarren ekitaldi honetan sententziarako ikusita gelditu zen. Hamabost egunen barru sententzia ezagutzea espero da.



**Parques
y Jardines**

**PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA**

**LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR**

**LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ**



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



Vetrotex España S.A. enpresako ordezkariak

Eskola Politeknikoa bisitatu zuten joan zen ostira-lean. Orain hiru urte horiek amankomuneko proiektu bat jarri zuten martxan materiale konpuestoekin sortze lan berriak egiteko. Rafael de Ramon, Vetrotex enpresako zuzendariak, ontzat jo zuen bisitaldia. "Horrela jarraitu behar dugu etorkizunean, harremanak sendotuz".



Egunkaria-koak **harpidetza kanpaina** egiten ari dira herri askotan, baita Arrasaten ere. Lan horretan Paulo Larrea eta Maite Lizartza dabilta etxe eta tabernetatik pasatzen. Beraz, ikusten badituzue atea ireki lasaitasunez, Egunkariaren izenean doaz eta.



Pasa den asteartean Udaletxeko langileek, Obenerrekan zeuden **makalak bota zituzten**. Duela urte batzuk makalei, botatzen zuten hautsagatik, inausketa egin zitzairen. Ondorioz, makalei sustraiak indartu zaizkie eta lurpeko saneamendu instalazioetan kalte handiak eragin dituzte. Egoera hori ikusita hartu zen zuhaitzak botatzeko erabakia.



"**Publizitatea eta kontsumismoa**" izenburupean, Ekin emakume taldeak antolatutako hitzaldi sorta entzuteko aukera izan da azken bi asteetan. Azken hitzaldia, asteazkenean izan zen, AEDn arratsaldeko 3etan eta hizlaria Luis Belaustegi.

Lore lurrindegia


Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

VE ECUADOR

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

El impacto económico de la fusión nuclear
Estados Unidos, el mayor deudor del planeta
El gigante industrial de Banesto

Ranking

de la economía española

n.º 45 Febrero 1992 600 pts.

Ranking
de las
SGR

Encuesta de salarios*

* TODOS LOS DATOS DISPONIBLES
EN 'DISKETTE'

En la otra orilla,
el integrismo islámico

La gran amenaza de la civilización occidental

Encuesta salarios
Price Waterhouse-Ranking

¿Qué ganan los directivos según sectores?

La nueva Mondragón

La Cooperativa Vasca
se abre a Europa



Javier Mongelos,
presidente de Mondragón

Javier Mongelos,

Arrasateko Kooperatiben zuzendaria Ranking aldizkari-ko azalean agertzen zaigu otsaileko ale honetan. Barneko zailtan sei orrialde-tako elkarrizketa egiten zaio Arrasate Taldearen aldaketa eta etorkizunari buruzko galderak landuz eta bi grafikorekin ilustratuz. ▶

txutxumutxuak

Izen
PROPIOAK

● **Maite Argaña**, 44, da Euskal Telebistan agertzen diren Euskal Lehengai izeneko iragarkian Fagorreko ordezkaria. Maitek injinerutza teknikoa ikasi zuen Eskola Politeknikoan, eta Fagorreko hainbat lantegitan ibili ondoren, Aire Girotuaren Frand Manager lanpostuan ari da gaur egun.


● **Agurtzane Elkoro**, 21 urteko gaztea da Aretxagazeta hamabostekariko kazetari berria. Magistaritza ikasketak egin ondoren TASOC, kultur animatzaile teknikaria izateko kurtsoa egiten ari da.

● **Jose Arriaran**, 65 urteko arrasatearrak domina bat jaso zuen joan den astebukeraren ospatu zen Pelotarien egunean. 17 urtekin jokatu zuen eskuzko pelotako lehen partidua eta 46 urtekin azkena da, profesionaltasun maila agerian utzi zuen kantxan. Eta era batean oraindik ere kantxan jarraitzen du, ez jokalaria bezala baina bai komentaria lanean, *ETB Kantxa* saioan.



◀ Ez da gehiegi falta arrasatearrak **harresi zaharra behar bezala ikusteko aukera** izan dezaten. Izan ere, Udala egokitzen ari den lokalari bukatuta egoteko ez zaio asko falta, pintatzea bukatu eta komunak jartzeko bakarrik. Lokalaren erdian lau zutabe ez baleude ederki geldituko litzateke, baina ezinbestekoa denez dagoenatun utzi behar.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea,
etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA**
eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea,35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABAETA


Tfnoa: 79 88 75
79 75 99



**Bergara eta Arrasate arteko bidean lan-
nean ibili** dira aste osoan eta baita aurrekoan ere. Egu-
neko orduetan, seinaleak eta langileak bertan izan direnez,
auto errenkada luzeak sortu dira. Gaueko orduetan gauzak
okerragoak izan dira, gutxiago ikusteaz gain, egunez zulatu-
takoa ez dutelako behar bezala estali. Nahiz eta seinalatuta
egon, bat baino gehiago izango zen seguruen bapatean
zuloekin aurkitu zena.



— ▲ — ▲ —
Teodoro Alonso Martinez de Baroja eta **Felisa
Ibañez de Opakua** senar emazteek urrezko eztaiak ospatu
dituzte otsailaren 11n. 1942. urtean parrokian ezkondu ziren eta
urteurrena ere bertan ospatu dute. Argazkian ikusten den bezala
iloba pila bat dute, 18 gutzira.




— ▲ —
"Iokin Zaitegi Plaza". Honela deituko da Roneo-Biteri
eraikuntzan egingo den enparantza berria. Obrak hasita bai baina
noizko amaituko diren jakin ez arren, jadanik enparantza honi jarri
diote izena. Baita atarietako zenbakiak ere zehaztuta geratu dira.

AED Elkarteak, uztailean antolatzen dituen Udalekuetarako, lehenengo hamabostaldirako **BEGIRALEAK BEHAR DITU.**

Baldintzak:

- 17 urte baino nagusiagoa
- Euskara ondo menperatu
- Arrasatearra izatea
- Esperentzia kontutan hartuko da

Curriculum-a aurkeztea ezin bestekoa izango da.
Izenematea: AED Elkarteak. Pablo Uranga, 6 Tfnoa: 79 54 46
Epea apirilaren 15ean bukatzen da.





Egiaren ordua

**Tramitezko partiduak
bukatu dira dagoeneko.
Lehen fasea historia
da eta egiaren ordua
iritsi da, jokoan
dauden puntu guztiak
eskuratu beharreko
garaia. Alperrik
galdutako aukerek,
defentsa lanetan
egindako hutsek edo
gaizki planteiatutako
partiduek konponbide
zaila izango dute
hemendik aurrera.**



URRIN taberna

**KAZOLATAN
ESPEZIALISTAK**

Urbarri Etorbidea, 22
Tfnoa: 79 95 24
ARRASATE

LIZARRA taberna

Leintzibar kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35

ESKIÑA taberna

**Goizeko 7etan
zabaltzen dugu**

Olarte, 25
ARRASATE
Tfno: 79 20 20



A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Argi Ibilii	1	1	0	0	8	3	2
Los Heredia	1	1	0	0	4	2	2
Fosforos	1	1	0	0	5	3	2
Fasprint	1	0	1	0	3	3	1
Bar Kajoi	1	0	1	0	3	3	1
Notxingan Flo.	1	0	0	1	3	5	0
La Banda	1	0	0	1	2	4	0
Hirei	1	0	0	1	3	8	0
Totala	8	3	2	3	31	31	8

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida	1	1	0	0	5	1	2
GNU Seg Bilbao	1	1	0	0	3	1	2
Akaitegi Express	1	1	0	0	5	2	2
Adobe	1	1	0	0	6	4	2
Los Motz	1	0	0	1	4	6	0
Danok Lagun	1	0	0	1	2	5	0
AEK	1	0	0	1	1	3	0
Arrasate Kirolak	1	0	0	1	1	5	0
Totala	8	4	2	4	27	27	8

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Lorategi Potroak	1	1	0	0	7	1	2
G. P. Noski	1	1	0	0	4	2	2
Jo ta akabau	1	1	0	0	4	3	2
Artzankos	1	0	1	0	3	3	1
V. C. Daglas	1	0	1	0	3	3	1
Zulu's	1	0	0	1	3	4	0
Pepelu's	1	0	0	1	2	4	0
Diego Antonio	1	0	0	1	1	7	0
Totala	8	3	2	3	27	27	8


Bigarren faseko lehen ihardunaldia besterik jokatu ez denez, sailkapenetan ezin da diferentzia handirik izan. Gainera, edozein taldek izan dezake egun txar bat; alde horretatik, hobe da oraingo egoerari jaramon gehiegirik ez egitea. Dena dela, bada kontuan har daitekeen gauza bat: lehen fasean lehenengo postuetan bukatu zuten taldeak direla bigarren faseko lehen partiduaren ondoren sailkapenean agintzen dutenak. Egoera horrek zerbait esan nahi duen? baietz dirudi, lehen fasean erakutsitako erregulartasuna adierazgarri izan daiteke eta.



Lorategi Potroak: Jesus, Josetxu, Miguel, Aitor, Re-karte, Karlos, Kiko, Juani, Murillo, Jesus eta Imanol.




Diego Antonio: Andoni, Juan Mari, Eduardo, Raul, Mario, Mikel, Jon, Jon, Diego eta Egiluz.





Erregatea dohai bitxia da, eta ezkertiarra izanez gero, are eta gehiago. Futbolean ezkerreko hanka behar bezala erabiltzen jakin izan dutenak betidanik izan dira futbolari handi. Normala denez, futbitoan gauza bera gertatzen da eta ezkertiarren aurrean defentsa lan ona egitea ez da bat ere erraza izaten, erreflejoak behar dira horretarako.



LASO ARREGI argazkidenda

Alfontso Jakintsua Plaza, 3
ARRASATE
Tfnoa: 79 12 75

EMAITZAK

A taldea

Bar Kajoi 3 Fasprint 3
La banda de Pepe 2 Los Heredia 4
Argibili 8 Hirei 3
Notxingan Flores 3 Fosforos 5

C taldea


Artzankos 3 V C Daglas 3
Lorategi Potroak 7 Diego Antonio 1
G P Noski 4 Pepelu's 2
Zulu's 3 Jo ta akabau! 4

B taldea


Arrasate Kirolak 1 Adelaida 5
Los Motz 4 Adobe 6
Akaitegi Express 5 Danok Lagun 2
GNU Seg. Bilbao 3 AEK 1



Gure-Leku taberna



Zarugalde
Arrasate
79 20 29



ARRASATE KIROLAK

Astore, Nike, Reebok, Auia,
Adidas, Converse, Mito, Ellesse,
Boreal, Libero, Quicksilver, Le
coq sportif, Millet, Saucony,
L. A. Gear, etab.

Kontzeziño kalea, 8 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 12 Faxa: 77 05 30

Auto-soinua
Karburaioa
Autoarentzako
osagarriak

Uribarri Etorbidea, 16 ARRASATE 79 73 58

A G U S T I N

• Arimazuri •
dastapenak
ZABALIK GOIZEKO
SETATIK

Arimazuri plaza / Loramendi, 6
ARRASATE
Tfnoa: 79 80 44



Txutak

Lehen fasearen amaiera

Dagoeneko eman zaio hasiera Zaldibarko futbito txapelketako benetako faseari. Zortzi taldek osatutako hiru multzo antolatu dira eta normala denez, ez da alde handiegirik batetik bestera.

Aipatutako berdintasunaren ondorioz, ez zen aparteko gol kopuru ikaragarri ikusi eta hemendik aurrera gutxiago ikusiko dira seguruen. Zentzu horretan, zerbait nabarmentzekotan *Argi Ibili* taldeak *Hireiri* sartu zizkion 8 golak eta *Lorategi Potroak*-ek *Diego Antoniori* sartutako 7ak. Dena dela, emaitza horiek engainagarri gerta daitezke, bi partiduetan markagailuak erakusten zuena baino berdintasun

handiagoa eman zelako.

Berdintasunaren hariari jarraituz, aipagarriak dira berdinketarekin bukatu ziren lau partiduak, hamabitik lau berdinketarekin bukatzea esanguratsua da eta. Era berean, kontuan hartu behar da irabazi zuten gehienek bi goletako alde besterik ez zutela lortu.

Gauzak horrela eta bigarren fasearen hasera denez, datorren asteko partiduei begira ezin daiteke pronostiko gehiegi egin. Lehen ihardunaldiko emaitzak kontuan hartuta, A multzoko partidurik interesgarriena *Fosforos* eta *Fasprint*-en artekoa izango litzateke; B taldean, berriz, *Akaitegi Expres - Gnu. Seg. Bilbao* eta *Adelaida - Adobe* aipa daitezke; azkenik, C multzoan, *Artzankos - Lorategi* partida izan daiteke aipagarriena.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEAN

A taldea


La Banda	Argi Ibili
Los Heredia	Hirei
Bar Kajoi	Notxingan
Fasprint	Fosforos

B taldea

Akaitegi Express	GNU Seg. Bilbao
Danok Lagun	AEK
Los Motz	Arrasate Kirolak
Adobe	Adelaida

C taldea

Artzankos	Lorategi Potroak
V. C. Daglas	Diego Antonio
G P Noski	Zulu's
Pepelu's	Jo ta akabau!



EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Legarre Pabiloia.
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11

IOSEBA KONTENEDOREAK



Uriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE

ARRASATE KONPONKETAK

● Zure autoaren injekzio-arekin arazoak dituzu? Hala bada, jakizu gasolinezko injekzio mota guztietan espezialista den zerbitzua dela gurea, merkatuko makinariak sofistikatuenek.

Zaldispe kalea, 5
Tfnoa: 79 95 41 ARRASATE

GOROSTI

Jatetxea

Arimazuri Plaza. Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

RUMBA


taberna

Iturriotz Kalea
ARRASATE

Karmelo Urdangarin debarrak oso ondo ezagutzen du euskal industria eta ekonomiaren eboluzioa; kooperatiben mugimendua-rena batez ere, historikoki aztertu bait du. Donostiako Merkataritza Eskolan ikasi zuen eta kooperatibetan lan egiten du. Hobby gisa aspaldiko lanbideak ikertu ditu eta ikerketaren ondorioz, joan den astean aurkeztutako "Antzinakoak" liburua.

Karmelo Urdangarin

"Antzinakoak" eta oraingoak ikertzen



— Ekonomiaren egoera penagarria, ezta?

— Bai benetan, orain behea jota dago eta urte osoan horrela izango da seguruen. Baliteke datorren urtean egoerak aurrerapauso txiki baf egitea eta pixka bat hobetzea, baina ez gehiegi.

— Horren arrazoiak?

— Garai batean hemen eraiki ziren industrietan helburu bakar bat zuten, egiten zen guztia estatu mailan saltzea. Gauzak horrela, enpresa txikiak egin ziren; estrategia ekonomiko guztiak, enpresari eta agintarienak hortara bideratzen ziren eta gainera ez zegoen inolako konpetentziarik. Gaur egun egoera asko aldatu da: mugetako zergak desagertu egin dira eta atzerritik oso jende eta enpresa konpetenteak etorri dira. Ondorioa? industria merkatuaren zati handi bat galtzen ari dela, kanpotik etorritakoek jaten diotena; hortik ekonomiaren egoera kaxkarra.

— Eta horren aurrean, zer egin daiteke?

— Egoera horri eman behar zaion erantzun bakarra kanpoan saltzen hastea da, bestela jokoa galduko dugu eta orain galtzen ari garela esango nuke.

— Galtzen, zergatik?

— Enpresariei eta administrazioari erantsiko nioke errua. Uste dut enpresarien gestioa ez dela errealitateak eskatzen duena, planifikazio eta estrategia mailan hutsune handiak bait dituzte; gainera fusio gutxi egin dute. Enpresa txikiekin jarraitzen dute, enpresa handiek dirua merkeago eskuratu edo ikerketa mailan lan egiteko abantailak dituztela garbi dagonean.

Administrazioak ez du

jakin europarrekin konpara daitezkeen azpiegiturak sortzen, hezkuntza sistema honen ez dira beharrezko diren profesionalak ateratzen, berrikuntza gutxi egin ditu eta ez du herrian beharrezko den kontsentsua lortu.

— Kontsentsua?

— Bai, argi dago beste borroka batzuk beharrezko direla beste gauza batzuk lortzeko, baina ekonomiari kalte egiten diote. Zentzu horretan, administrazioak ez

du kontsentsu hori lortu.

— Eta kooperatiben egoera?

— Krisiak berdin eragin die kooperatibei ere, baina gainerakoekiko alde handia dago, neurri handi batean kooperatibak elkartuta daude eta. Egoeraren aurrean hobeto egoteaz gain, kooperatibak beraien hirugarren kongresuan antolamendua aldatzeko gai izan dira, egoerari hobeto erantzun ahal izateko. Gainontzekoak ez dira erantzunik ematen ari, kooperatibak behintzat egoerari buelta emateko prestatzen ari dira.

— Aurrera begira, zer ikasteko gomendatuko zenioke erabaki ezinik dagoen gazteari?

— Nik? gorputzak eskatzen diona ikasteko, baina jakinda askotan ondo bizitzeko irteera gutxi izango dituela. Dirua irabazi nahiko balu injenerutza edo hizkuntzak ikasteko, Arrasateko Eskola Politeknikoan gainera.

— "Antzinakoak" liburua?

— Asteburuetan egin dudan gauza bat izan da, TU Lankide aldizkarirako idatzitako artikuluek osatua. Bertan, hogeitamarren bat lanbide zahar jasotzen ditut, argazki dextenterekin. Argazkiak bereziki lan handia eman didate, urtetako lana.


— Bereziki bateren bat aipatuko zenuke?

— Ez dakit. Liburu hori egiteko pertsona eta pertsonaia zoragarri mordoak aurkitu ditudala esango nuke, aintzinako euskaldun jatorrak. Lanbide horien eboluzioa oso kuriozoso izan da, desagertzen joan diren heinean ondo bizitzen hasi dira eta; beno, gutxi direnez normala ere bada. Bereziki aipatzekotan zintzarreroak, eskoberoak, amuegileak, talaixeroak, pileruak...


— **“Baliteke datorren urtean egoera ekonomikoak aurrerapausoren bat egitea”**

Aurten zer jantziko duzu?




 Pailazoak, perretxikoa, amona mantangorriak, pirata, arlekina, indioak... umeak dira mozorroari askotan grazia gehien ematen diotenak. Oraindik zurea gertatu ez baduzu, sorta polita duzu Igor Blazquezen argazkian presaka eta azken orduan trapu batzuk pilatu eta zerbait egiteko.




 "Mexiko lindo y querido..." kantatu eta tekilatarako dirua atera, ez da plan txarra jai egun hauetarako. Ezta? Aurten ere bidetan izango da hango ordezkartzaren bat, azken egunetan Euskal Herritik hara joan den moduan.




 Xagua ala katua ote? Horri ere, umeei bezala, gustatzen zaizkio zorroetan erosten diren litxarrerriak. Hatzamarrak mihazteko adina gainera.




 Iazko karnabaletan "Pipi" etorri zen Arrasatera eta ez bakarra gainera. Udalaizpean ibili ziren, baina bere inguruan ez genuen zaldi arrarorik ikusi.




 Haratuzteak ez dira ume eta gazteen kontua, ez horixe. Nagusiak ume jaztea ere gertatzen da, ez dakigu gaztetz aldera edo zela. Azkenean, ez daukaguna desio denok.




 Aurpegia margotzeko ordua, zertarako? mozorroa ahalik eta ondoen eramateko? inork ez ezagutzeko? jendeak aurpegiko espresiorik ez ikusteko?... auskalo! behintzat hobeto pasatzen laguntzen du.




 Mexikar, mariatxi, kanperero edo dena delakoa haratuzteetan jende askoko erabili izan duen mozorroa da. Izan ere, ez da gauza gehiegirik behar: kapela handi bat, pontxo zahar bat, bota kanperak eta espuela formal batzuk. Argi dagoenez, argazkikoari gehien behar bezalako bibotea jartzea kostatu zitzaion. Adinaren kontuak!



 Pailazo ugari ikusten dira urtero urtero haratuzteetan, batez ere umeen artean; baina, astoarekin batera, zenbat? Ez da erraza halakorik aurkitzea. Jose Luis Feo argazkilaria, ordea, aurkitzeko habilitade hori izan zuen.



 Halako ume ganberrorik! biberioa berak hartu beharrean ez du ba argazkilaria busti nahi! Bere amak harrapatuko balu, ederki berotuko lioke ipurdia.

Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE




Aukea sarien banaketa

Centraljet Euskal Air eta Tabirako saskibaloit taldeen partiduko atsedendian, Aukea sariak banatu ziren. Sonia Txaparrok ez zuen izan kiroldegira hurbiltzerik eta bere amak jaso zuen saria. Taldeen saria, Jose Mari Balzategik jaso zuen, Centraljet ordezkatzuz. Azkenik, Zaldibarko antolatzaileei plaka bat eman zieten; Joakin Azkoagak jaso zuen.

Nesken azken partidua

Mondrako neskek aurtengo ligako azken partidua jokatuko dute asteburu honetan, Zarautzen. Ligan sei lehenengoan artean bukatu dutenez, gero kopa jokatze-ko aukera izango dute. Joan den asteburuan, Atxabalpen bina berdindu zuten Dunboa taldearekin.



Rugby Garagartzan

Rugby taldekoek garai-
pen erraza lortu zuten joan den astean, Gernikari 50 eta 0 irabazi zioten eta. Arrasatearrei, mailari eusteko gelditzen zaien bi partiduetatik derrigorrez bat irabaztea komeni zaie. Lehen aukera larunbata honetan izango dute, Bera-Bera taldearen aurka.

Hurrengo partidua

Bost gol jaso zituzten mondragoetarrek joan den aste-ko partiduan Santutxura egin-dako bidaian. Arrazoiak? lehenik, bizkaitarrek ederki jokatu zuten; bigarrenkoz, areezko zelaietan Mondra ez da inoiz ondo moldatu; eta azkenik, normalean titularrak izaten diren zortzi gizonen ezin izan zuten jokatu: Xabier, Dieguez, Maturana, Urretxu, Gerardo, Moreno eta Patxi de la Fuente.

Inoiz ez da ona izaten hainbeste gol jasotzerik, baina gauza txarretik ona ere ikas daitekeela esan ohi da, eta seguruen mondragoetarrek hurrengoan hainbeste gol jasotzeko ikasiko zuten zer ez den egin behar. Errealeko entrenatzaileak eta jokalariek asko aste osoa hori esaten pasatu badute, Mondrakoek zergatik ez?

Ikasitakoak ikasita, datorren igandean Pasaia taldea etorriko da Atxabalpera, Mondran bezala, etxean baino kanpoan puntu gehiago ateratzen duen taldea. Beraz, kontu handiz ibili behar dute mondragoetarrek, bestela erraza izango litzateke negatibo berriren bateskuratzea. Atxabalpen, igandean, arratsaldeko 4.15etik gainera.

ITSASKI

arrandegia

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate 79 98 94

MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

PODIUMA

JUAN LUIS IRAZOLA

Beste final-erdi baten aurrean



Juan Luis Irazola, berriz ere, pilotari profesionalen bigarren mailako erdi-finaletan sartu da. Urteroko ilusiotxoak piztu zaio Arrasaten taxista lana egiten duen atxondotar honi. *"Aurten azken partidura iristeko esperantza handiak dauzkat, iaz baino handiagoak egia esan. Behin-iztat gauzak lehenengo partidoan bezala iritetzen bazaizkit, finalera iristeko aukera handiak dauzkat"*. Irazolak aipatzen duen lehen partidu hori, Mutrikun jokatu zuen, Lollartaren aurka eta erraz irabazi zuen gainera, 22 eta 4ko emaitzaz. *"Sakez oso ondo ibili nintzen, zuzenean 6 sartu nizekion eta beste asko justu-justu iritsi zitzaion errestora, gero nik errematatzeke"*.

Finalerako bide horretan, Santi pilotaria izango du oztopo nagusi. Izan ere, larunbatean Bergarako frontoian elkarren aurka jokatu dute. *"Santi ez da oso ondo ezagutzen. Pilotari gaztea da eta badauka bere pegadaxoa, baina ez da oso indartsua. Xipri, nire botileroa, joan den astean Santik Tolosan jokatu zuen partidua ikusten izan zen eta esan didanez, erraz irabaziko omen diot. Xiprik bizi guztia frontoietan darama*

eta pilotaz ulertzen du, beraz, berak esandakoa kontuan hartu beharko du".

Juan Luis Irazola, batez ere, erasorako pilotaria da eta bere jokoa bolean oinarritzen du. *"Betidanik izan da nire armarik onena, erasorako gain, defentsa handia egiteko baliagarria da eta, gutxiago mugituta kantxaren zati handia har daiteke"*. Irazola finalera iritsiko balitz eta finalean irabaztea lortuko balu, datorren urtean profesionalen arteko lehen mailan jokatzeko aukera izango luke. Dena dela, aukera horri ez dio jaramon gehiegirik egiten. *"Azken finean enpresek erabakitzen dute pilotariek zein partidu jokatu behar duten"*.

Datorren urtean lehen mailan jokatu duen edo ez alde batera utzita, lehenik Santiri irabazi beharko dio Juan Luis Irazolak. Ea bada Xiprik egin dituen pronostikoak betetzen diren eta atxondotarra erraz nagusitzen den.

◆ Pilotan denetarik

Pilotariak ez ziren azken asteburuan bezain ondo portatu, baina gaizki ere ez, jokatutako lau partiduetatik bi galdu bait zituzten. Euskal ligaren barruan, arrasatearrek Ortuellan jokatu zuten eta 22-9 galdu zuten. Deba Arroako txapelketan, berriz, Bergararen aurkako neurketa: infantiletan 18-5 galdu; jubeniletan 22 eta 13 irabazi eta seniorretan ere bai, 22-7. Asteburu honetan Deba Arroako txapelketan igandean Aretxabaletaren aurka Iturripen, goizeko 11 etatik aurrera.

◆ Emakumezkoen Centraljet-entzat partidu inportantea

Joan den asteburuan Logroñoko Lestonnac taldearen aurka erraz galdu ondoren, emakumezkoen Centraljet-ek irabazi beharreko partidua jokatu du asteburu honetan. Partidua larunbatean izango da, arratsaldeko 5etatik aurrera eta Iturripen, Musakolan Play-Back jaialdia prestatzen ibiliko dira eta. Mutilek, bere aldetik, Deuston jokatzeko dute, La Salle taldearen aurka.



◆ Brues, galdu arren lidergoan

2 eta 0 galdu zuen joan den asteburuan Construcciones Brues futbito taldeak, baina oraindik lidergoari eusten dio, puntu bateko diferentziaz besterik ez bada. Larunbatean Iturripen jokatu dute Brues-ekoek, Gasteizko *Electricidad Corva* taldearen aurka, arratsaldeko 7etatik aurrera.

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua

Santa Kruz, 24-1* (1°C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

FELIPE
MADINA
ZURAK

Zarugalde, 40 Arrasate 79 13 78

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde, 23-2. Ezk.
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90

Haur hezkuntzari buruzko akordioa


Egungo momentua kritikoa da irakaskuntzarako. Gure ihardueran eragin zuzena duten hainbat aldagai kontutan hartzeokoa dira, irakaskuntzaren aldetik, etorkizunari behar den moduan erantzuteko. Hala nola LOGSEren ezarpena, jaitsiera demografikoa; haur biztanlegoaren %100a eskolarizatzeaz gain kalitatezko irakasluntzaren exijentzia etabar.

Guzti horrek ikastetxeen arteko elkarriketak eta harremanak eskatzen ditu.

Honexegatik, Hezibide Elkartea osatzen dugun ikastetxeok hainbat akordiotara iritsi gara, ikastetxe bakoitzaren esparrua argituz eta mugituz, zentzu honetan eman daitezkeen pausoen artean bat izanik.

Haur hezkuntzari buruzko akordioa

Akordioen artean bat, haur hezkuntzari dagokio: Ume Zaintzak eta San Frantzisko Xabier Ikastolak 0-6 urte bi-



tarteko etapak elkarrekin eskeintzea, hain zuzen ere.

Bere helburuak hauek dira:

1) Ikastola bien esperientzia eta errekurtoz baliaturik, eskaintza hobe bat ahalbideratzea, gure inguruak eskatzen duenari erantzuteko itxaropenaz.

2) Ikastola bakoitzaren zerbitzu kalitatea areagotzeko esfortzuak egiterakoan, beste ikastola baten esparruan konpetitiboki ez sartzea.

3) Ikastola biek, etapa honi egokitzen dizkieten errekurtoak arrazionalizatzea.

Planteamendua

Ume Zaintza Hur Eskolak eta San Frantzisko Xabier Ikastolak 0-6 urte bitarteko etapa elkarren artean eskeini eta gestionatuko dute, orain arte bakoitzak izan duen proiektu eta eskaintza mantenduz. Honetarako, eskaintza berak bi zerbitzu desberdin kontenplatuko ditu:

1) Inguruko-lan baldintzetara egokitutako Hezkuntz eskeintza.

2) Eskolako baldintzetara egokitutako Hezkuntz eskeintza.

Eskeintzen zehaztasunak: Biak eskeintza eskolarrak izateaz gain, honako berezitasunak dituzte:

1) *Inguruko lan baldintzetara egokitutako hezkuntz eskeintza:*

- Lan mundua da bere erreferentzia puntu garrantzitsuenetarikoa: ordutegi eta egutegian batez ere.

- Haurrak lau hilabete izan geroztik.

- San Josepen kokatua.

2) *Eskolako baldintzetara egokitutako hezkuntz eskeintza:*

- Eskola da bere erreferentzia puntu ordutegia eta egutegia eskolarenak dira.

- Haurrak bi urte izan geroztik.

- Auzoetan kokatuta: Musakolan, Olarten eta Uribarrin.

Konbentzituta gaude akordio honek ahalbideratuko duela haur hezkuntzaren hobakuntza. Hori da gure helburua.

ARANTZA LEJARRAGA

UME-ZAINTZAKO ZUZENDARIA

EDURNE ERAUSKIN

IKASTOLAKO ZUZENDARIA

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

BEVERLY TABERNA

Gipuzkoa Etorb., 9 Tfnoa: 79 16 99
ARRASATE

Errealitatearen simulazioak

Ingurugiro heziketaren asmo aktibo, eta disiplinartekoa ulertzeko tresna bat dugu besteak beste: *Simulazio Teknika Didaktikoak*. Jolasteko tresna, errealitateko elkareragintza konplexutasunaren lane-rako sinplifikazioak. Horretarako eredu ezberdinak erabiltzen dira, errealitatea adierazten dutelarik.

Eredu hauetan baloreak garrantzizkoa dira, giza-harremanak ere bere toki berezia izaten dutelarik eta biak praktikan jartzen dira.

Bide batez errealitatearekiko somaketa ahalmena bultzatzen ari gara, baita ideien arteko lotura ere, eguneroko bizitzan agertzen den erara.

Beste aldetik, erabakiak

hartzen irakasten ari gara. Arazoak eta haien konpokatetaren oinarrituriko irakaste prozesua baita. Honela, ahalmen kritikoan, errealitatearen arazoak ebaluatzean eta alternatibak garatzen ikasleak trebatzen ditugu. Azkenik, talde zentzua azpimarratzen da, kooperazioaren beharraz eta ezagupen trukeen bidez.

Honelako Simulaziozko Teknika Didaktikoak, errealitatearen erreproduktzioa izanik, ingurugiroa era didaktiko batean bihurtzeko aukera ederra dugu.

Oharra: U.I.E.-n lantzen dugun jolas baten eredu aurkeztuko dizuegu. "Proiektua: Monterroi parkea urbanizatzea".

Betiko sufridoreak


Gune Natural eta Baso Flora eta Faunaren kontserbaziorako martxoaren 27an onartutako 4/1989 Legeak, zera dio ondorengo bi artikulo hauetan:

9.1. Art. Lurra nekazari-tza, basagintza, eta abeltzaintzarako erabiltzea bere gaitasun biologikoa eta produkzio ahalmena mantentzeko bideratu beharko da, inguruko ekosistemak errespetatuz.

9.2. Art. Basoei dago-kienez Herri-Administrazioen ekintzak basoen (edozein jabe izanda ere) babesa, berriztapen, hobekuntza eta antolatutako aprobeixamendua lortzea izango ditu helburu, eta bere kudeaketa teknikoak lege, ekologia, baso eta sozio-ekonomiazko ezaugarriekin bat egon

beharko du, kasu guztietan herri-onura pribatuaren

gaintik egongo delarik. Argazkian ikus dezake-



zuen irudia Besaidetik Garagartzara doan erreka-txoarena da. Argazkia, aurtengo urtarrilaren bukaeran egin zen eta ikus daitekeenez erreka ubidea guztiz aldatuta agertzen zaigu. Gaur egun, ubidea bera "baso-autopista" bihurtua izan da, bertatik kamioi, Land-Rover eta beste hainbat "tramankulo"-ri inguruan dagoen pinaldi batetara hurbiltzeko bidea samurtuz.

Garbi dago herri-onura pribatuaren azpitik dagoela ekintza honetan, gainera, eta betiko moduan, gure inguruko **gune naturalak** dira ekintza hauen ondorioak jasaten dituzten lehen-dabiziko eta betiko "sufridoreak". Dirudienez, bost axola zaie batzuei!!!

Egizu barre III. Play back jaialdian!

H aratuzteetako egitarauaren barne eta aurreko bi urtetan bezala, datorren larunbatean play back jaialdia ikusi eta bizi izateko aukera izango dugu. Hasieran SUDC taldeak eman zuen lehenbiziko pausoa jaialdia aurrera ateratzeko, baina ideia beste herrietan ospatzen diren jaialdietatik hartu zen. Aurten Musakolako Kiroldegian egingo da, gaueko 10.30tan, bi-hiru orduko iraupenarekin. Momentuan modan edo denon hitzetan dauden pertsonaia famatuen mugimendu eta ahotsak berpizten saiatuko dira, bakoitzak asmatu bezain ondo. *"Gu ez gara profesionalak, urtean behin aktuatzen dugu eta horregatik kopiatzeari baino gehiago, lortu nahi duguna entretentzea da"*.

Jendearen aldetik, urtero jende bera da eszenatokira igotzen duena. Puntu honetan faltan somatzen da jendearen partehartzea. Arrazoiaren artean jaialdiaren ondoren kaletan egiten diren kritika ez




oso onak aipa daitezke. *"Hurrengo egunetan beti izaten dira, kontrako zerbait esateko izaten dutenak, baina hara igotzeko gu bakarrik egoten gara prest"*.

Diru aldetik, ekipoa, argiztapena eta beharrezkoak

diren bestelako tresna guztiak alokatu egiten dira. Gainera pertsonaia bakoitzak behar dituen jantzi, peluka eta makilatzeko pinturak ere erosi egiten dira. Hasierako gastu hauek sarrerakin konparatzen baditugu emai-

tza parekoa da. Beraz, ez da izaten ez irabazi ez galerarik.

Sarrerak Hire, Montte eta Xaramelan daude salgai eta 500 pezeta balio du bakoitzak. Beraz, oraindik lortu ez baduzu, mugi amaitu baino lehen.



Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46

ARRASATE

◆ **Ibai-arte elkartearen logotipo lehiaketa**

Ibai-arte erdialde merkatarien elkarteak anagrama aukeratzeko, logotipoen lehiaketa-deialdia egin du. Oinarri eta arau bezala Deba Garaiko edozeinek parte hartu ahal dezake. Teknika librean izanik, erabili dituen erizpide-argumentuak aipatu beharko ditu egileak. Lanak Markiegi dendara bidali baharko dira martxoaren 31 baino lehen. Irabazleak 40.000 pezetako saria eskuratu du, bere izena komunikabideetan agertuz.

◆ **Haratuzteetako Argazki Rallya**

Haratuzteetako jaien barne argazki rallya antolatu da lehengo egunerako. Irabazleen artean lau maila egingo dira: bilduma, argazki onena, bigarren bilduma eta bigarren argazki onenak hartuz. Sariak 20.000tik 5.000ra bitartekoak izango dira kategoriaren arabera. Argazki karreteak ostiralean jaso daitezke Epelde, Laso eta Ikatz dendetan eta berriz hartutako lekuan entregatu matxoak 4a baino lehen. Argazki guztiak ASA elkartearen esku geldituko dira eta 12tik 22ra erakusketa izango da Monterronen partehartzaileen lanak erakusteko.



Angel Puerto

"Corazón de Encina" taldekoa

Kultur talde bezala Estremadura aldeko ohitura eta bizitza ezagutzeko sortu zen. Arrasaten 1.500 estre-maduratar bizi dira eta, hoietatik 210 elkarte-ko bazkide dira dagoeneko.

— **Noiz eta zergatik sortu zen taldea?**

— 1990. urteko urrian sortu zen. Gutxigorabehera hogeitaz lagun bildu ginen eta Andaluziako zentrorazuzendu ginen zer egin ikusteko, pixka bat beraien eredu jarraituz. Udaletxeko zentsoan ikusi genuen Estremadura aldeko jende asko zegoela Arrasaten eta hortik hasita lehendabiziko bilerak antolatu genituen. Bestalde, orduko eta gaur egungo asmoa kultur taldea izatea da, ikastaro, bidai eta hitzaldien bidez. Gainera taldekide asko Arrasaten bertan jaiotakoak gara eta hango sustraia berpiztu eta kultura ezagutzeko bide egokiena elkarte honen bidez egindakoa dela uste dugu.

— **Antzeko beste taldekin harremanik baduzue?**

— Bai, iparraldeko juntakoekin eta Santurtziko junta orokorrarekin batez ere. Gainera Donostia, Andoain, Zarautz eta beste herri batzuetako kultur



taldekin izaten dugu hilabetero batzarra, ideia berriak, aktibitateak ezagutzeko eta abar.

— **Zeintzuk dira zuen diru iturriak?**

— 210 bazkideek aportatzen duten dirua dago alde batetik, eta gainera subentzioak. Denbora gutxi dela udaletxeak eman digu laguntza bat eta datorren urtean Zentru kulturalen Federazioan sartzea espero



dugunez, antolatzen ditugun aktibitateen arabera emango digute laguntza.

— **Gaurko helburuen artean zein azpimarratuko zenuke?**

— Ekintza guztietan gazteen partehartzea gehitzea, eta ez bakarrik hemen egiten diren bilertan, baizik eta euren aktibitateak beraiek antolatzeari lortu nahi dugu, akanpada edo mendi irteerak esate baterako. Azken finean, eurak izango dira elkarte aurrera aterako dutenak. Beste epe laburreko objektibo bat lokala aldatzea da. Datorren azaroan Eskatu lantegiko lokal batetara joatea sspero dugu.

— **Azpiegiturari buruz, ze antolaketa mota duzue taldearen barne?**

— Diruzaintza arazoetaz arduratzen den talde bat dugu alde batetik eta kultur ekintzetaz arduratzen dena bestetik, baina beste arlo batzutan erabakiak denon artean hartzen ditugu, esate baterako martxoan Estremadura aldera bidai bat egitea pentsatu dugu, eta plangintza egiteko orduan, bileretan hartu diren erabakiak dira azken finean balio gehien izaten dutenak.

**Monte
taberna**

Maalako errabala, 11 Tfnoa: 79 20 56



J. Ramón Otamendi

HARATEGIA

Ferrerias, 20 • Tel. 79 62 28

ARRASATE

Aste gazte

"Gazte" esatea, adina esatea da, langabezia, lana, familia, independetzia, ardurak, eta abar, asko zehaztu gabeko diskurtsoa baina hainbat ezaugarri benetan finkatu dituena.

"El Nudo" aldizkaria.

Bekak

• 1992-93 ikasturtean Belgikako Lieja Unibertsitatean ikasketak sakontzeko bekak. Eskatzaileak: frantsesa menperatzen duten 35 urtetik beherako goi mailako graduatuak. Ikasketak: ikerlanak edo doktoradutza. Iraupena: 9 hilabete. Dirulaguntza. 30.000 franko belgiar eta bidaia. Epea: martxoak 16.

• 1992-93 Lobainako Unibertsitate Katolikoan ikasketak sakontzeko bekak. Eskatzaileak: neerlandesa, ingelesa edo frantsesa menperatzen duten 35 urtetik beherako lizentziatuak. Gaia:

edozein espezialitate. Dirulaguntza: hileko 18.900 franko, matrikula, bidai-laguntza, aseguruua. Epea: martxoak 31.

• Atzerriko unibertsitate eta ikerketa-zentruetan ikasketak sakontzeko bekak. Arloak: ekonomia eta zuzenbidea. Eskatzaileak: unibertsitate-titulua, atzerriko unibertsitate edo zentruan onartua izatea eta dagokion hizkuntza menperatzen dutenak. Dirulaguntza: hileko 1600 \$, matrikula eta bidaia. Epea: apirilak 14.

Lehiaketak

• Arrasateko Haratuzteak - 92 argazki-rallya. ASA taldeak antolatua. Gaia: Arrasateko Haratuzteak. Karrete-banaketa otsailaren 28an, 6etatik 8etara izango

da, martxoak 4ean entregatu beharko direlarik. Sariak: 20.000, 15.000, 10.000 eta 5.000 PTA.

• Hondarribiko "Saindua" Gazteluko ekintzak iragaritzeko kartel-lehiaketa. 25 urtetik beherakoei zuzendua. Hiru koloretan, edozein modalitatean. Sariak: 40.000 PTA eta 10.000ko 2 akzesit. Lanak aurkezteko epea: martxoak 12.

• "Toribio Etxeberria" enpresa munduko ideien III. lehiaketa. Eibarko Udalak antolatua. Gipuzkoan jaio edota bizi direnei zuzendua. Proiektua: edozein lan-iharduerari buruzkoa izan daiteke. Saria: 3.000.000 PTA eta garaikurra. Epea: apirilak 20.

Borondatezko lana

• "Jose Marti" lan-bri-

gada, Cuban. Uztailak 10-30 bitartean, nekazaritza eta eraikuntza lanetan arituko da. Partehartzaileek bidaiatz gain, 7.000 PTA ordaindu behar dute. Inskripzio-epea: martxoak 7. Euskadi-Cuba kultur elkarteak antolatua.

Ikastaroak

• Gasteizko "Acción 21" aisialdi-eskolak antolatutako asteburuko ikastaro monografikoak: a) Gorputz espresioa, martxoak 21-22 b) Gazteekiko komunikazioa, martxoak 27-28. Matrikula prezioa: 3.500 PTA.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

IRAGARKI HAU 5.800 ETXETAN SARTU DA.

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO

ARRASATE PRESS AUKERATUZ GERO.

ETXEBIZITZAK

- Eskoriatzan etxebizitza alokatuko genuke lehenbailehen. Tfnoa: 73 04 20. Amaia.
- Etxebizitza salgai Zigarrolan. 4 logela, egongela-jangela, sukaldea, bainu gela, guztiz amueblatua. Dei egin 79 18 34 zenbakira.
- Gela alokatzen dugu ikasleen etxebizitza baten ekainetik aurrera. Tfnoak: 74 00 37 eta (94) 630 85 40 / 684 16 65.
- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza. Logela bat libre dago. Dei egin 81 66 24 tfnora.
- Hiru pertsonentzako etxebizitza behar dugu Arrasaten. Tfnoa: 79 48 11. Oskar eta Blanka.

LANA

- Esperientzia duen neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 72 92. Elena.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- 1. eta 2. REMeko klase partikularrak emateko prest (bereziki matematika, kimika, eta fisika). Dei egin 79 79 14 tfnora. Sergio.
- Klase partikularrak ematen ditugu: Oinarrizko Heziketa Orokorrean eta euskara maila guztietan. Tfnoa: 77 04 98.
- 7. mailako matematika eta hizkuntza klase partikularrak behar dira. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 20 40 tfnora.
- Emakume euskaldun bat behar da etxeko lanak egin eta bi ume zaintzeko. Dei egin 7.30etatik aurrera 79 63 29 tfnora.
- Bi oheko gela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Errusierako klaseak ematen dira. Dei egin 79 78 75 tfnora.

- Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. (Bai erdaraz eta baita euskaraz edo ingelesez ere). Tfnoa: 79 62 89.
- Aretxabaletako Dis-Tel oihaldendak esperientziadun jostuna behar du. Dei egin 79 48 49 tfnora.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke, orduka edo egun guztiz. Tfnoa: 79 54 03.
- Neska bat behar da ingelesa erakusteko. Tfnoa: 77 10 59.
- Esperientziadun pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 77 10 59.

SALEROSKETAK

- Ia berria dagoen arkoi-izozkailua eta urte t'erdiko pixu bat eta kutxa erregistradora bat (3 urtekoa) saltzen dira prezio negoziagarrian. Neurriak 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbatera bitartean 94 - 658 34 94 tfnora.
- Txapa kalefaktorea salgai, egoera onean, baita gas naturalarentzako ur berogailua ere. Tfnoa: 79 59 72.
- Colnago markako mountain bike-a saltzen da. Atzekaldean kubieta berria eta grupo osoa Shimano markakoa ditu. Oso egoera onean dago. Prezioa 50.000 PTA. Dei egin gaueko 8etatik 10etara 79 08 48 tfnora.
- Hiru mendiko bizikleta salgai. Mendiz, Otero eta Orbea markakoak. Tfnoa: 77 04 21.
- Collie txakurkumeak ditut salgai. Tfnoa: 76 64 83.
- Fondoko hiru eski pare salgai. 6-8, 8-10 urte eta nagusientzat. 5, 7 eta 10 mila PTA, dena osorik. Tfnoa: 76 32 69.
- Yamaha SR 250 motorra salgai. 17.000 kmkin eta 230.000 PTA. Dei egin 79 62 56 tfnora 8etatik aurrera.

- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra salgai. Berria. Tfnoa: 79 15 54.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra eta ur-berogailua salgai. Berriak. Tfnoa: 77 06 70.
- Marshall anplifikadorea salgai. Transistore "combo" modelo 100 watt. Urtebete baino gutxiagokoa. Oso prezio onean. Dei egin 79 36 83 tfnora.
- Alpen Kreuzer Allure modeloko kanping erremolke-denda salgai. Tfnoa: 79 80 85.
- Gezi moduko kitarra elektrikoa distortsio eta guzti salgai. (Gorria eta beltza). Baita pedala eta Aria markako anplifikadorea ere (berria dago), 50 W. AG-35 R modelokoa. Dei egin 79 39 92 edo 945 - 26 28 01 tfnoetara.
- Alpen Kreuzer Super GT kanping erremolke-denda salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 945 - 44 50 43 tfnora.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailua salgai. Dei egin 79 57 93 tfnora egunez edo 79 82 28 gauez.
- Monty markako trial-sin bizikleta salgai. Hiru urte t'erditi eta oso egoera onean dago. 35.000 PTA. Tfnoa: 79 01 94.

DENETARIK

- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnoa.
- Buzoneoa egiteko prest. Enpresa eta erakundeen iragarkien banaketa egiten dugu. Dei egin goizez 79 35 02 tfnora.
- Ehiza-txakur bat erregalatuko nuke, txertatuta dago, eta urtebete du. Dei egin 76 64 47 tfnora.
- Otsailaren 4an Urkulun eguzkitako betaurrekoak galdu nituen bostak aldera. Inork aurkituz gero, dei dezala 79 21 50 tfnora.
- Urrezko kate bat topatu dugu kalean, zureabada dei egin 7etatik aurrera 79 33 35 tfnora.
- Jaime Lizaranzen partez zorionak Joseba!!!



**ARRASATEN
HILDAKOAK**

Regina Briz Fernandez,
otsailaren 19an. 81 urte.

Eusebio Santa Cristina Exposito,
otsailaren 23an. 86 urte.

Feliciano Santos Muñoz,
otsailaren 23an. 86 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Bertsotan

Ihauteriak

1
Ihauteriak heldu dira ta sorpresak dira espero donon burutan parranda eta poltsikoak hutsik gero, monja, eskale, estraterrestre edo eta kamarero gau eta egun disfrazatua asko dabiltz egunero.

2
Egunak pasa eta etorri guztiok zoroan pare ihauteriak bertan daude ta ezer ez dago debalde egun bat lasai ezin baduzu Brasilera egin alde Atxabaltan be mobida onaz igandez bilduko gare.

LEIRE GOROSTIZA



Zer nahiago?

Natalia Rodrigo Bazar Arrasatekoa



- **Erosketetan joateko karrua ala poltsa bat?** Segun zenbateko erosketaren, baina normalean nahiago dut poltsa.
 - **Rocka ala trikitixa?** Trikitixa gustorako entzuten dut.
 - **Taberna ala dantzalekua?** Segun ze egunetan, tabernara lehengo eta gero diskotekara.
 - **Euria ala elurra?** Euria, elurrak arrisku gehiago du eta.
 - **Igandetan, elizara ala mendira?** Beharbada bat ere ez, baina aukeratzekotan mendia.
 - **Soldaduzka ala insumisioa?** Soldaduzkaren kontra nago eta ez joateko hartzen den edozein neurri ondo iruditzen zait.
 - **Egunkaria euskeraz ala erderaz?** Normalean erderaz irakurtzen dut, baina euskerazkoaren alde nago.
 - **Marrazu ta abestu?** Biak gaizki egiten ditut. Hobe bat ere ez hastea.
 - **Kolore bakarreko alkondara ala estanpatua?** Estanpatuak edo kolore askotakoak nahiago ditut.
 - **Erakusketa bat ala hitzaldia?** Segun zeri buruz den hitzaldia, nahiago dut erakusketa baino.
 - **Pirata ala monja mozorroa?** Hoietatik bat ere ez. Oraindik ez dut prestatu mozorroa eta gainera ez dakit mozzoratuko naizen.
 - **Saltzeko oinetakoak ala bitxiak?** Bitxiak. Pertsonalki gehiago balio dezaket bitxiak saltzeko oinetakoak saltzeko baino.
 - **Zilarra ala urrea?** Urrearekin hobeto identifikatuta ikusten dut nere burua.
 - **Ahulkia ala sofa?** Sofa. Beno, segun zertarako, baina orohar sofa bat..
 - **Ile motza ala luzea?** Luzearekin hobeto ikusten dut neure burua.
 - **Bisitak hartu ala zeuk egin?** Hobe bisitak neuk hartzea.
- Norbait bisitatzera joateko nagi xamarra naiz.




ETXEPARE - BILINTX LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50



Tijuana, Mexiko 1950.



Argazkiko pilotari biak, gezurra dirudien arren, arrasatearrak dira, 1950ean ateratako argazki bate-

tan: Daniel eta Juan Kruz Gurudi Arregi dira. Biak ere Mexiko eta Filipinetan zehar ibili ziren zesta puntan eta garai haietan girorik apartenetan ere mugitukoak dira. Esan besterik ez dago Ava Gardner eta Rita Hayworth bezalako aktorea ospetsuak ere ezagutu izan dituztela. Hamar anaiarrebako familia arrasatear batetako partaideak ditugu. Gaur egun 85 eta 83 urte dituzte, eta bata Malagan eta bestea Mexikoko hiriburuan bizi dira.

Oharra: Ekainean Arrasaten ospatuko den Pilotarien Batzarre-rako pilotaren inguruko argazki zaharrak batzen ari da Batzorde antolatzailea. Badakite jakin gure irakurle askok izango dituela garai bateko erretratoak eta egingo den erakusketarako esan ezin ahalako balioa izango luketenez, uzteko deia egiteko eskatu digute. Halakorik duenari eskertu zaio Arrasate Pressera ekartzea. Ondo zainduko ditugu, eta hainbat lasterren jasoko dituzue bueltan. Eskerrikasko.

URONDO
elektrizitatea



- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Gurutzegrama

1	2	3	4		5	6	7
8				9			
10						11	
12				13			
14			15			16	
		17				18	
19					20		

Horizontalak

- Hegazi migraria
- Eusko alderdi jeltzalea
- Lagun
- Emakumezko mitologi pertsonaia
- (Ald.) Esnatu aurretik
- (Ald.) Bilo
- Zein tokitara
- Zutoin
- Zientzia fikziozko pelikula
- Konturatu
- Errepikatuz Sanferminetako oihu
- Emakume izena

Bertikalak

- Hiritar
- Arrasateko auzoa
- Kimikan aditua
- (Ald.) Isurbide hasieran
- Omen
- Animatu
- Izoztua
- Abesti
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Rodia

V	U	H		U	V	I	R
U	T	R	A	H	O		A
T	E		T	E	K	V	T
A	R	O	N		I	L	E
L	O		A	I	M	V	L
E	D	I	S	K	I	S	A
J	A	E		U	K	U	K

JUAN BAUTISTA AGORRIA

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



Haratuzteak 92

Asteartean, 9.15

Arrasaten jai bereziren bat egoten den bakoitzean egin ohi dugun bezala, datorren asteartean ere jai giroari buruzko saio berezia eskainiko dizuegu: Haratuzteak 92.

Elkarrizketak, bideoak, eta nola ez, batez ere umore ona izango ditugu nagusi aipatu saioan.

Ezgaldu aukera: aforduan, eta kalera irten aurretik, hortxe izango gaituzue zuon etxeetan.

Haratuzteak 92. Asteartean. 9.15etan.

Telebegi

Azken hilabeteotan sarri xamar tokatu izan zait komunikabide handietan ATB edo Arrasate Presi buruz hitzegitea. Izan ere, geure berri jakiteko gura nabaria izan da senide handien partetik.

Dena den, jakinmin horretan nabaritu izan dut oso gustoko gertatu ez zaidan zerbait. Arrain handiak txikia ingururatzean mespretxuaren eta irensteko gurariaren arteko sentimendu kontrajarriez ari naiz, noski. Herri komunikabideak zenbateraino garen serioak eta profesionalak, zein neurritan pena merezi duen horrelako gauza txikietan esfortzu handiak egitea, edota azkenean ez ote duen hobe izango herri komunikabidetan trebatu ondoren benetako komunikabideetara — handietara — saltoa jotzea, hartarako balio dezakenak.

Eta niri arrain txikia izatearen harrotasuna piztu zaidala esan behar dut. Herri mailako informazioa bestelakoa bezain beharrezkoa dela zinez uste dut. Herri komunikabideak euskararen aldeko lanean beste zenbait bezain eragingarriak direla ere sinesten dut, eta beste asko baino gehiago ere bai.

Zinez diot. Nire ikuspuntutik ATB ez du zertan handitzen denean ETB izan beharrik.

MIKEL IRIZAR

Asteko zinea

Rio Bravo

Egunero
9.50etan

Txatxaran

*Al Andalus eta Corazón de Encina*ko gazteak

Asteazkenean
9.15etan

ATBketan

ATBko lehiaketa.
Etorri zu ere!

Ostegunean
9.15etan

Programazioa

1

IGANDEA

9.15. *Mondragol*. Mondra-Pasaia partiduaren ordu erdiko laburpena, Jose Luis Ezkurraren ardurapean.

2

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko Kirol-mundua-
ren erreposoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uri-
besalagorekin.
9.50. *Asteko zinea*: Rio Bravo.

3

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*.
9.15. *Haratuzteak 92*: Saio berezia. Elkarrizketak, bideoak, eta batez ere, umore ona nagusi.
10. *Asteko zinea*: Rio Bravo.

4

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*.
9.15. *Txatxaran*. Maider Egués-
ek zuzendutako elkarrizketa saioa. Aste honetako gonbi-
datuak: *Al Andalus* eta *Co-
razón de Encina* elkartetako gazteak.
9.50. *Asteko zinea*: Rio Bravo.

5

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Al-
bistegia.
9.15. *ATBketan*. Anne Igarti-
buruk aurkeztutako le-
hiaketa berri, umoretsu eta
ikusgarria.
9.50. *Asteko zinea*: Rio Bravo.

6

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. In-
formatiboa.
9.15. *Ostiral Musikala*: Marta
Izagirrek zuzenduta, Arra-
sate Musikali eskainitako
saioa.
9.50. *Asteko zinea*: Rio Bravo



HIRI ETA ESTATU
BARNEKO ETA NAZIOARTEKO

BIDALKETAK

ALBACETE, Batalla del Salado, 37. T. 967-22 75 53 - **Almansa**, Aniceto Coloma, 40. T. 967-34 58 58 - **ALICANTE**, C/A Fuentes de Alipark, loc. 3. T. 96-510 05 33 - **Alcoy**, Entenza, 46. T. 96-552 55 66 - **Benidorm**, Lepanto, loc. 30. T. 96-586 53 11 - **Elche**, Avd. Libertad, 123. T. 96-544 21 01 - **Elda-Petrel**, José Martínez González, 89. T. 5385 9 98 - **Torre Vieja**, Avd. Diego Ramirez, 223. Ecucenter, T. 96-571 73 91 - **ALMERIA**, Santa Isabel, 62. T. 951-25 09 88 - **El Jido**, Alvaro Soto Mayor Gal. Cial. T. 951-48 36 13 - **Huerca Overa**, Crta. Nacional 340, Edif. Davinia, 2. T. 951-47 13 13 - **ANDORRA**, Carlemany, 105. T. 973-8-26300 - **AVILA**, Avd. de la Juventud, 6. T. 918-2112 67 - **BADAJOS**, Av. Juan Sebastián Elcano, 5 A. T. 924-25 50 51 - **Don Benito**, San Francisco, 30. T. 924-84 33 07 - **Mérida**, José María Pemán, 3. T. 924-31 94 49 - **PALMA DE MALLORCA**, Andrea Doria, 8. T. 971-23 21 41 - **Inca**, Edisson, 1. T. 971-50 37 11 - **Manacor**, Av. Salvador Juan, 86. T. 971-55 57 74 - **Ibiza**, España, 30. T. 971-30 16 00 - **Formentera**, Crta. Pujol, s/n. T. 971-32 24 18 - **Ciudadela**, Camí des Degollador, 87. T. 971-38 05 12 - **Mahón**, Av. Anselmo Clavé, 56. T. 971-35 05 12 - **BARCELONA**, Casanova, 79. T. 93-323 32 05 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Palacio de Congresos - **Boulevard Rosa**, Pº. de Gracia, 55-57 - **Centro "La Caixa"**, Diagonal, 635 - **Cristal**, Gran Via, 1176 bis - **Jonqueras**, Jonqueras, 2 - **Mercurio**, Vía Augusta, 59 - **Nerviñ**, Vía Layetana, 20 - **Windsor**, Vía Augusta, 2 - **Financia**, Pau Claris, 162-164 - **Pallars**, Pallars, 85-91 - **Colón**, Drassanes, 6-8 - **Mercabarna**, Esc. C Edificio Oficinas - **Hipercor**, Meridiana, 354 - **Padilla**, Padilla, 205 - **Carlos III**, Sabino de Arana, 32 bis. bjos. - **Badalona**, Marqués de Mont Roig, 126. T. 93-388 51 51 - **Barbè**, Pso. Moragas, 256. T. 93-718 36 52 - **Berga**, De la Sardana, 27. T. 93-874 12 98 - **Cornellá**, Crta. Sant Boi, 9. T. 93-377 22 00 - **Granollers**, José Umbert, 58. T. 93-870 06 12 - **Hospitalet**, Plza. Maestro Clavé, 6-8. T. 93-337 01 00 - **Igualada**, San Ferrán, 22. T. 93-804 24 11 - **Manresa**, Crta. Pont Vilomara, 17. T. 93-874 12 12 - **Mataró**, Rda. Antoni Comas, 24. T. 93-798 34 57 - **Mollet**, Cayetana Ventalló, 87. T. 93-570 47 52 - **Pineda**, Santiago Rusiñol, 11. T. 93-762 69 69 - **Polinyá**, Mayor, 5-7. T. 93-726 72 20 - **Premiá**, De la Plaza, 36. T. 93-752 10 55 - **Rubí**, Avd. Catalunya, 4 Edif. Iris. T. 93-697 03 66 - **Sabadell**, Rosales, 18 - T. 93-726 43 77 - **S. Andrés B.**, Plza. Iglesia, 1. T. 93-653 24 51 - **Tarasa**, Balmes, 19. T. 93-789 22 22 - **Vic**, Av. Martí Genis Aguilar, 25. T. 93-885 62 50 - **Villafraanca**, Arbós, 14. T. 93-890 35 40 - **Villanueva**, Gornal, 13. T. 93-815 19 60 - **BILBAO**, General Eguía, 7 - T. 94-443 76 08 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona Servicios - **Cámara de Comercio**, Alameda Recalde, 50 - **Bermeo**, Reina Zubi, 17. T. 94-688 19 04 - **Durango**, Maspe, 10. T. 94-620 01 62 - **Guernica**, Bº Txaporta, 3. T. 94-685 65 00 - **BURGOS**, Comuneros Castilla, 19. T. 947-23 66 11 - **Miranda**, Reyes Católicos, 14. T. 947-31 06 40 - **CACERES**, Sta. Luisa Marillac, 16. T. 927-21 06 34 - **Plasencia**, Rda. Salvador, 71. T. 927-41 26 09 - **CADIZ**, Guadix, 3. T. 956-25 75 61 - **Algeciras**, Urb. Dña. Castida, bloq. 10. T. 956-65 35 61 - **Ceuta**, Gral. Aranda, 10. T. 956-52 18 01 - **Jerez F.**, Pso. Delicias, 5. T. 956-34 01 11 - **LAS PALMAS**, San Diego de Alcalá, 12. T. 928-36 55 77 - **Fuerteventura**, Avd. 23 de Mayo, 3. T. 928-85 07 17 - **Lanzarote**, Avd. Mancamunido, 4. T. 928-81 67 14 - **Playa del Inglés**, Centro Comercial Nilo, loc. 1030 - T. 928-76 66 53 - **TENERIFE**, Ramón y Cajal, 50. T. 922-28 34 54 - **CASTELLON**, Maestro Falla, 7. T. 964-22 87 99 - **Benicarló**, Del Pilar, 10. T. 964-47 47 79 - **Vall de Uxó**, Plaza Villavieja, 6. T. 964-66 71 11 - **CIUDAD REAL**, Parque Residencial Rda., bl. 11. T. 926-25 24 66 - **Puertollano**, Pso. San Gregorio, 1 Bl. B. T. 926-43 00 50 - **Valdepeñas**, Amparo, 18. T. 926-32 17 32 - **CORDOBA**, Avd. Libia, s/n. T. 957-26 86 00 - **Lucena**, Hoya del Molino, 6. T. 957-59 13 71 - **Pozoblanco**, Dr. Antonio Cabrera, 8. T. 957-10 26 20 - **CORUNA**, Primo de Rivera, 11. T. 981-24 45 33 - **Ferrol**, Perbes, 16. T. 981-32 02 00 - **Santiago C.**, Pasadizo Brión, 11. T. 981-56 22 55 - **Riveira**, Ramón y Cajal, s/n. T. 981-87 22 12 - **CUENCA**, Colón, 73 - T. 966-22 92 21 - **GERONA**, Andrés Tuyet Santamaría, 13. T. 972-21 55 66 - **Figuera**, Verge María, 6. T. 972-50 27 66 - **Junquera**, Crta. Nacional II, Km. 11. T. 972-54 05 05 - **Olot**, Pare Roca, 8. T. 972-26 58 58 - **Palamós**, Iglesia de San Joan, 6. Tel 972-31 86 00 - **Puigcerdá**, Pla del Fort, 4. T. 972-88 14 51 - **GRANADA**, Trucha, Edif. Victoria, 3. T. 958-29 34 38 - **GUADALAJARA**, Angel Ma. de Lera, 4. T. 911-21 58 16 - **HUELVA**, Fernando el Católico, 4. T. 955-25 70 12 - **Ayamonte**, Joaquín González Sáez, s/n. T. 955-32 19 57 - **HUESCA**, Concilio de Imon, 14. T. 976-49 96 61 - **JAEN**, Avd. Madrid, 25. T. 953-26 53 04 - **LEON**, Cipriano Huerga, 14. T. 987-21 15 11 - **Ponferrada**, Tras de la Bóveda, 12. T. 987-41 82 51 - **LERIDA**, Avd. de las Garrigas, 13 - T. 973-20 57 58 - **Tárrega**, Dr. Riu, 7. T. 973-31 30 68 - **Viella**, Av. Pas d'arro, 5. T. 973-20 57 58 - **LOGRONO**, Jorge Vigón, 28. T. 941-25 79 66 - **Calahorra**, Bebricio, 41. T. 941-13 30 66 - **LUGO**, Amor Mellán, 14. T. 982-24 13 61 - **Foz**, Méndez Val, 8. T. 982-13 21 02 - **MADRID**, Ros de Olano, 7. T. 91-413 62 14 - **Receptorías Urbanas: Gran Via**, Gran Via, 67 - **Inadubiding**, Vía de los Poblados, 9 y 11 - Nº. 3 Sor Angela de la Cruz, 24 - Nº. 4, Cedaceros, 9 - **La Caixa**, Pº. Castellana, 51 - **División Internacional**: Coslada, 15. T. 91-246 26 00 - **Alcobendas**, Pinar Velázquez, 10. T. 91-653 50 66 - **Arganda**, Crta. Valencia, Km. 25,8, Nave 38. T. 91-871 44 91 - **Majadahonda**, F. García Lorca, s/n. Urb. Delta, T. 91-638 78 97 - **Getafe**, Avd. Ciudades, 92. T. 91-681 14 14 - **Móstoles**, Castellón, 15. T. 91-617 64 63 - **San Fernando**, Sierra Albaracín, loc. 33. T. 91-656 21 13 - **MALAGA**, Urb. Santa Cristina, loc. 6. T. 952-34 07 00 - **Fuengirola**, Miguel Unamuno, s/n. L3C. T. 952-46 30 00 - **Marbella**, Terrazas, P-3, loc. C. T. 952-82 61 61 - **Melilla**, Carlos de Arellano, 22. T. 952-68 38 47 - **Nerja**, Chaparril, s/n. T. 952-52 14 90 - **Ronda**, Villanueva, 21. T. 952-87 69 49 - **Torredelmar**, Urb. Pueblo Rocio, bloque 1. T. 952-54 05 84 - **MURCIA**, Pza. de las Balsas, 3. T. 968-21 00 31 - **Cartagena**, Licenciado Cascales, 10. T. 968-52 72 88 - **Lorca**, Avd. Juan Carlos I, Edif. Goya. T. 968-46 43 00 - **ORENSE**, Greco, 25. T. 988-24 34 00 - **OVIEDO**, López del Vallado, 7. T. 985-20 11 11 - **Avilés**, Llano Ponte, 56. T. 985-55 10 11 - **Gijón**, Perlera, 9. T. 985-35 11 11 - **PALENCIA**, Los Robles, 24. T. 988-74 79 77 - **PAMPLONA**, Pedro I, 19. T. 948-27 70 11 - **Tudela**, Diaz Bravo, 1. T. 948-82 19 17 - **PONTEVEDRA**, Trav. V. C. Mercadillo, G. Venecia. T. 986-84 43 12 - **Lalín**, Corredoira, 40. T. 986-78 17 44 - **Vigo**, Couto Piñeiro, 6. T. 986-41 51 00 - **Vilagarcía**, San Roque, 15. T. 986-50 43 33 - **SALAMANCA**, Bolívar, 10. T. 923-23 14 62 - **Fuentes Oñoro**, Doctor Fleming, 28 A. T. 923-47 32 82 - **SAN SEBASTIAN**, Pso. Vizcaya, 17. T. 943-46 40 55 - **Azpeitia**, Polig. Ind., 35, Barrio Landeta. T. 943-81 54 08 - **Eibar**, Pso. Urquiza, 24. T. 943-12 09 50 - **Irún**, José Eguino, 14. T. 943-61 25 41 - **Mondragón**, Avd. Vizcagón, 16. T. 943-79 96 97 - **Tolosa**, Av. Alava, s/n. Bl. 2. T. 943-65 41 24 - **SANTANDER**, San Celestino, 11. T. 942-22 52 72 - **Torrelavega**, José Luis Hidaigo, 5. T. 942-89 74 16 - **SEGOVIA**, Av. Fdez. Ladreda, 28, G. C. Loc. 10 - T. 911-44 00 55 - **SEVILLA**, Alejo Fernández, s/n. T. 954-42 05 11 - **Receptorías Urbanas: Sevilla-2**: Francisco Javier, 9 - **Torre de los Remedios**, Rep. Argentina, 24 - **Estepa**, Sevilla, 48. T. 954-42 00 08 - **SORIA**, Postas, 27. T. 975-22 60 96 - **TARRAGONA**, Mar, 19. T. 977-22 25 22 - **Ampostá**, Mayor, 28. T. 977-70 52 04 - **Reus**, Roseta de Sales, 40. T. 977-34 54 54 - **Tortosa**, Nova de Vall, 1. T. 977-44 67 13 - **Valls**, Sta. J. Vedruna, 7. T. 977-60 66 11 - **TERUEL**, Urb. La Guía, D 8. T. 974-60 85 18 - **TOLEDO**, Avd. Sta. Bárbara, 10. T. 925-21 44 04 - **Talavera**, Aragón, 6. T. 925-80 02 87 - **VALENCIA**, Dr. Beltrán Bigorra, 7. T. 96-341 44 22 - **Receptorías Urbanas: Feria de Muestras**, Zona de Servicios-Zona Este y Oeste - **Alicia**, Plza. Sagrada Familia, 8. T. 96-241 99 04 - **Gandía**, Mayor, 44. T. 96-287 31 70 - **Játiva**, Escultor Esteve, 5. T. 96-227 23 34 - **Onteniente**, Dos de Mayo, 95. T. 96-238 80 62 - **Requena**, Plza. Janini, s/n. T. 96-230 24 69 - **Sagunto**, Los Huertos, 89. T. 96-266 59 89 - **VALLADOLID**, Málaga, 10. T. 983-39 23 44 - **VITORIA**, La Florida, 58. T. 945-28 57 00 - **Llodio**, Solocelai, s/n. T. 94-672 56 66 - **ZAMORA**, Arapiles, 26. T. 988-52 10 99 - **ZARAGOZA**, Miguel Servet, 128. T. 976-49 95 11.

- HIRI BARNEKO ZERBITZUA
- * Furgoneta zerbitzua (400 Kg.)
- * Furgoneta zerbitzua (1.200 Kg.)
- ESTATU BARNEKO ZERBITZUA
- * Gau eta egun
- NAZIOARTEKO ZERBITZUA
- * Courier zerbitzua
- * Aire-karga zerbitzua
- * Itzulpen zerbitzua

ARRASATE

Bizkaia Hirib. 16, Tfnoa; 79 96 97

EIBAR

Urkizu Pas. 24 B, Tfnoa: 12 09 50

AZPEITIA

Landeta Auz. z/g Tfnoa: 81 54 08

DURANGO

Maspe 10-B, Tfnoa: 94-620 01 62

INFORMAZIOA
900 300 400



-ko kide



-ko kide